

TOKIKOM

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria
2012eko otsailaren 10a
311. zenbakia, 24. urtea



Txalupa zaharra, patroi berria

Zuzendaritza batzorde berria ezezik, talde teknikoa ere berria du arraun elkarteak, joan den azaroaz geroztik. Haiekin aritu gara hizketan.

07

Orioko kontuak
Inauteriak

11

Aiako berri
Altzerri

21

Gaia emanda
EAJ eta aurrekontuak

25

Herritarra
Anguleroak

ARRAUN EGUNA

ORIO IBAIKO 18. JAITSIERA • OTSAILAK 25, LARUNBATA • ORIO

11:00 UME JOLASAK PLAZAN

11:30 EUSKO LABEL SAGARDOAREN GINKANA IKASTOLA AURREAN

Hondarribia, San Pedro, Zarautz, Zumaiá, Ondarroa eta Orioko taldeak.
ERGOMETROAN: Talde bakoitzeko arraunlar gizonetako eta emakumezkoa.
LOKOTX BILTZEN: Traineru bakoitzeko patriak.
ARRAUNARI BURUZKO TRIBIALA ETA SAGARDO BOTATZEA: Herrietako alkateak.

Ondoren, DASTAKETA

12:30 KANTU-JIRA EGUNSENTI OTXOTEAREKIN

Herriarrei otxoteko lagunekin kantatzeko proposamena egiten die Egunsenti otxoteak.

Eguerdian, JAITSIERAKO ONTZIAK AUTOPISTA AZPIAN KOKATUKO DIRA

16:00 KINIELAN APUSTU EGITEKO AUKERA ITXIKO DA.

Euro batean egin apustu: zeinek irabaziko du BABYAUTO BANDERA?
Traineru irabazlea asmatzen dutenen artean lau sari zokatatuiko dira.

- Afaria bi lagunentzat Kabiña jatekian
- Afaria bi lagunentzat Xixarri jatekian
- Afaria bi lagunentzat Joxemari bodegoian
- Afaria bi lagunentzat Sarasua eretegian

17:30 ORIO IBAIKO 18. JAITSIERA, BABYAUTO BANDERA

19:00 SARI BANAKETA ORIOKO PLAZAN

Irabazleari, BABYAUTO BANDERA.
Gipuzkoako traineru onenari, Eusko Label Sagardoa saria (patriaren pisua emango zaio sagardotan).
Porra asmatu dutenen arteko zoketa.

Ondoren, HERRIEN ARTEKO SOKATIRA DESAFIOA

21:00 AFARIA FRONTOIAN

Afizioen eta arraunlarien senidearteko afaria.
Txarrelak salgai herriko tabernetan. 20 euro.
Menua: urdaiazpikoa, txorizoa sagardotan, berdele,
txemi-kostilla, gazta eta inbaurrak.

23:00 KARAOKEA PLAZAN

Herriko talde eta koadrilek kantu ezagunak abestuko dituzte herriarren aurrean.

Amaitzeko, XABI AROSTEGI DJA PLAZAN

Gaur egungo musika guztiak.
DJ oriotarraren lehen saioa.

Orioko Arraun Elkarteak txosna jarriko du
Herriko Plazan iluntzean eta gauean.



Requiescat in pace

1

Torero batek esan zuena ondo daukat ikasita: azken faenan denok besotan hankak aurrera jarrita. *Matadore* bat gogoan hartuz hasi behar det zirika, denbora luzez bizi ondoren azkenean ehortzita, ordaindu gabe joan zaiguna kontua mahaian utzita!

2

Nola ahaztu Gasteizen grisak eliz-atarin tiroka? Ta Jurramendin fanatikoek bi gazte karlista bota. *La calle es mía* harro esanaz bera gainera mokoka. Jakin dezala esandakoa ez zaigula asko inporta, Euskal Herrian behintzat beretzat kalerik ez da izango ta.

3

Gazte-gaztetik geurean kontra eskuinaren aitona, euskara hilda zegoela ta museo batentzat ona. Alferrik ez da pasa debora esaldi hartatik hona, bizitzak badu denantzat buelta, nahiz ta iruditu broma, bera joan zen ta euskera da bizi-bizirik dagona.

311

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea,
Eusko Gudari, 26
20810 Orio
943 831 527
karkara@karkara.com
www.karkara.com

Editorea

Karkara taldea
 kultur elkarte

Zuzendaria

Ana G. de Txabarri

Erredakzio burua

Irati Agirreazaldegi

Erredakzio taldea

Pat Cowie,
 Miren Etxeberria,
 iker Gurrutaga, Eli Lasa
 eta Jabier Zabaleta

Publizitatea

Pat Cowie

Publizitatearen diseinua

Lore Berasaluze
 eta Iker Gurrutxaga

Testuen zuzenketa

Miren Etxeberria eta
 Jabier Zabaleta

Ale honetako

laguntzaileak

Amalia Iribar,
 Mikel Iruretagoiena,
 Iñaki Iturain,
 Eneritz Odriozola
 eta Orioko EAJ.

Laguntzaileak

Xabier Sukia

Diseinua

Danel Agirre Lertxundi

Banatzailak

Cristina Burlacu eta
 Iban Recio (Orio)
 Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)
 Lege gordailua SS-346/90
 ISSN 1132-1105
 Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.



DALMAO

PUBLIZITATE PREZIOAK

Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko

Pat Cowierekin hitz egin
 (695 780 720) edo
publizitatea@karkara.com
 Prezio hauei BEZa gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sailak
 diruz lagundutako
 hedabidea

Lodosako ikastolarekin elkartasunez

Lodosako ikastolari laguntzeko 1.100 euro lortu ditugu Orioko Herri Ikastolan. Mila-mila esker guztioi!

Lodosa-Sartagudako ikastolaren egoera ez da erraza. Eremu ez euskaldunear kokatuta dagoen aldetik, ikastetxeak egoera ekonomiko zaila bizi du eta horren aurrean Ikastolen Elkarteak laguntzeko deia egin du; izan ere, euskarak Lodosako ikastola behar du.

Kanpaina berezi bat jarri da martxan, eta aurreneko egitasmoa *Ikasle bat, euro bat* izenekoa izan da. Euskal Herriko ikastolek euro bat emango dute matrikulaturik duen ikasle bakoitzeko. Horrez gain, Orioko Herri Ikastolak mundu guztiari egin dio dei laguntza emateko, eta kontu korrante bat ere zabaldu duela jakinarazten du nork bere ekarpena egiteko. Hona hemen zenbakia:

3035 0153 46 1531026051. ■ **Orioko Herri Ikastola**

Nahikoa da

Gobernuan sartu ginenetik entzutea tokatu zaigu. Kritika politikoak onartzeko prest gaude, irizpide ezberdinak ditugulako eta ikuspegi ezberdinen artean eztabaida egotea normala delako. Baina ez gaude edozer gauza onartzeko prest.

Egin dezagun azken hilabeteetan erabilitako hitzen errepaso. EAJ alderdiak administrazio publikoko *inuzenteak* girela idatzi zuen azaroaren 30ean. *Diktadoreak* eta *gezurteroak* urtarrilaren 4an. Urtarrilaren 29an, berriz, Bilduko bi zinegotziren kontrako salaketa pertsonala egin zenuten, justifikaziorik gabe norbere interesen defentsan aritzea egotzi zenieten Beñat Solaberrietari eta Jon Agirresaroberi. Hori oso grabea da.

Minduta gaude, oso minduta. Udalera lanera sartu ginen; gu bezala, zuek. Norberak erabakitzen du nola jokatu eta zer egin. Udaletxera azaldu ere egin gabe gutunak idaztera dedikatu nahi baduzue, zuen aukera da. Zuek aukeratu duzue gobernuan ez sartzea, liberaziorik ez hartzea, eta lanean ari diren beste bi alderdietatik aldentzea. Herria eta Udala lagundu beharrean, kontrakoa: *gurea* ez den alkatea oztopatzea. Bistakoa da zuen jarrera.

Bigarren aldiz, KARKARAN, errespetua eskatzen dizuegu. Kontu handiz ibili gezurrak zabaltzerakoan. Are gehiago, pertsonen aurka justifikatu gabeko salaketak egiterakoan. Gu ez gara eskutitzak erantzuten arituko; lanera etorri gara

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidal daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (kultur etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izeirik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

eta, herriak kezkatzen bazaituzte, udaletxean egingo dugu topo, pertsonatik pertsonara, zinegotzitik zinegotzira. Bartzordeetan, alorrez alor antolatuta diren aholku mahaietan edo udaletxeko pasilloan.

Orioko Udalean bada lanerako aukera; prest egon behar, ordea. ■ **Orioko Bildu**

Cine Leunda dela eta...

Aurreko KARKARAKO *Oroimenaren Kuxta* atala irakurrita, zenbait kontu etorri zitzaizkidan burura.

Makina bat ordu pasatakoa naiz zine hartan; beno, bai ni eta baita nire adineko beste jende asko ere. Kontua da, ni ez naizela bereziki gogoratzen *Ben-Hur*, *Lo que el viento se llevó* edo *Sonrisas y lágrimas* bezalako pelikula handiekin eta, bestalde, nik ez dut erlazionatzen toki hori artikuluan aipatzen ziren hitzaldi edo jaialdi ilustre haiekin ere.

Cine Leunda gehiago lotzen dut nik beste mota bateko pelikulekin: *Fu Manchu*, *Le llamaban Trinidad*, *La mula Francis*, *7 novias para 7 hermanos* edota Luis de Funes frantsesarenak, garai hartako *españoladak* eta horrelakoak. Egia da haietako batzuk benetan txarrak zirela, baina berdin zitzaidan...

Han ikasi nuen Oklahoma, Chicago edo Idaho existitzen zirela, Kieven beti elurra egiten zuela eta Pecos ibaiaren beste aldekoak azkarragoak zirela *colta* rekin.

Ikasi nuen Sissiren soineko ederrak ez zirela behin ere zimurtzen, eta baita harrituta gelditu ere ezin asmatuz nola kabitzen ziren maleta txiki haietan *diligentzian* bidaiatzen zuen emakumearen gona luzeak.

Edo Londresko behe-lainoaren atetik beti sustoa espero behar zela. Jakin genuen, baita ere, indioak izan litezkeela komantxe, apatxe, xoxon, arapaho, txeroki, seminola, txirikaua, navajo, sioux, txeiene edo hankabeltzak –tira, guk *pies-negros* esaten genien azken horiei-. Gero, agian ez zelako errentagarria edo –ez dakit arrazoa-, itxi egin zuten zinea.

Gogora etorri zait nola, garaitsu hartan, Itzala tabernan, pelikula zale amorratu talde bat elkartu ginen eta, Udalaren laguntzarekin alkilerria ordainduz, Orioko Zine Klub taldea sortu eta martxan jarri genuen. *Con la muerte en los talones* izan zen lehenbiziko pelikula, 1983ko apirilaren 29an, eta beste asko etorri ziren ondoren: *Chinatown*, *El tambor de hojalata*, *Quadrophenia*, *The Last Waltz*, *Temrock* eta abar...

Cine Leunda bota zuten, orain dauden etxeak egiteko eta, 16 mm-ko kamera erosita, Itsas Etxeko –gaur egungo ambulatarioiko– aretoan jarraitu genuen, baina hori beste kontu bat da...

Lerro hauen bitartez, agurtu nahi nituzke garai hartako Jabier Bergara –orain Gasteizen bizi dena-, Mauri –Zarautzen-, Iñaki Bastos, Manu Peña, Xanxe, Jabier Zabaleta eta, jakina, Santos. Barkatuko duzue, baina nostalgiko xamarra jarri naiz... ■ **Sorkunde Lizaso**.



Jokin Izagirre, mahaian eskuinean eserita, bere azken udalbatzarrean. KARKARA

2012ko aurrekontuak mahai gainean geratu ziren azken plenoan

Plenoa hasi aurretik, Orain taldeak eskaera egin zion Beñat Solaberrieta alkateari aurrekontuen bozketa hurrengorako uzteko eta Bilduren eta Orainen botoekin onartu zen hori.

Urtarrilaren 30ean, astelehena, iluntzeko 20:00etan, ez-ohiko udalbatzarra egin zen Orioko udaletxean. Alkateak azaldu bezala, batzordeen bilerak-eta izan zituztelako, hilaren 26tik 30era pasazuten plenoa.

Gai zerrendaren ordena aldatu zuten lehenik eta behin, ustez lapurtutako haurren sarea dela-eta EAJk bultzatutako Orioko Udalaren adierazpen instituzionala zegoen zortzigarren, baina bertaratutako batzuen eskariz, lehenengoa izan zen eztabaidatzeko.

Horrez gain, 3. eta 4. puntuak, aurrekontua eta langileen ingurukoak, mahai gainean uzteko eskaera egin zuen Orainek. Bozketa egin zuten eta Bildu eta Orainen baiezko botoekin eta EAJren abstentzioarekin, aldeko 7 boto jasota aurrera egin zuen eskaerak. Gauzak horrela, 2012ko aurrekontuak oraindik onartu gabe geratu ziren, baita 2012ko langileen zerrenda organikoa eta lanpostuen zerrenda ere.

Onartu ez zen puntu bakarra, Orioko

Udalak Azkoitia, Zarautz, Urretxu, Errenteria eta Ormaiztegi udalekin, Kutxaren gobernu organoak aukeratze-ko taldea osatzearena izan zen. EAJk ezezko 6 boto eman zituen, Bilduk aldeko 5 eta Orain abstenitu egin zen.

Gainontzeko gai guztiak onartu ziren. Teknifikazio zentroarenak eztabaida handia sortu zuen, eta Bildu eta Orainek proiektuaren aldaketa onartu zuten, baina EAJk ezezko botoa eman zuen. Kutxabaneko Kontseilari Nagusiak izendatzeari buruzko mozioak ere eztabaida sortu zuen, baina Bilduren eta Orainen aldeko botoekin onartu egin zen.

Azken gaia Jokin Izagirrek, Orain taldeko zinegotziak, kargua uztearena izan zen. Zerrendako hurrengoak Mikel Aranzabalek ere ez du hartu nahi izan, lan kontuak tarteko, eta, ondorioz, Joxe Angel Iparragirrek hartuko du Jokin Izagirrek utzitako lekua. Beñat Solaberrieta alkateak esker ona adierazi zion Jokin Izagirreri Udalean tarte honetan egindako lanagatik.

Eskari eta galderen tartea

Eztabaida ugari izan zen azken udalbatzarrean gai-zerrenda bukatu eta eskari eta galderen tartea zabaldu zenean.

Noemi Ostolaza hasi zen hizketan esanez, *udal gobernuak langileekin izaten ari diren jarrerarekin kezkatuta gaude, sorgin ehiza moduko bat egiten ari direla iruditzen zaigu. Kultur teknikariari lanaldia erdira jaisteko proposamena txosten juridikoa izan arte ez egiteko eskatu nahi genuen eta, hala ere, bozkatu egin zen batzordean. Dena dela, atzera egin dela ikusi dugu. Hala ere, ez zaigu bidezkoa iruditzen pertsona bati lanaldia erdira jaistea, nola pentsatzen duen ez gustatzeagatik. Mahai honetan dauden bi, lanpostu hori lortu nahian ibili ziren, eta guk usain txarra hartu diogu kontuari.*

Beñat Solaberrietak horrela erantzun zion: *aurrera jarraitzen du prozesuak, udal langileen lanak banatu nahi ditugu eta hortik etorri da kultur teknikariaren lana erdira jaisteko proposamena. Duen pentsatzeko modua ez zaigula gustatzen esatea zure interpretazioa da gaineratu zuen, eta idazkariari Noemik esandakoa aktan jasotzeko eskatu zion. Aipatutakoen izen-abizenak esateko eskatu zuen alkateak eta, orduan, Jon Redondok esan zuen Solaberrieta bera eta Agirresarobe zirela. Hitz horiek aktan jasotzeko eskatu zuten Solaberrietak.*

Emaizta bikainak Danbolinekoek Andoaingo piano jaialdian

Andoainen urtero izaten da Danbolin musika eskolako ikasle taldea Bastero kultur gunean egiten den piano jaialdian. Aurten ere han izan dira 17 piano-jotzaile Audra Almanaityte irakaslearekin.



Aipamen berezia jaso zuten Amaia Izagirrek, Jon Loidik eta Ander Carrerak. DANBOLIN MUSIKA ESKOLA

Otsailaren 4an eta 5ean egin zen aurten- go Andoaingo piano jaialdia. Eguraldi hotzak barrura jotzeko tentazioa ematen zuen, eta oriotarrak Bastero kultur guneko bi aretotan jardun ziren jo eta ke pianoari soinu gozoak ateratzen.

Orietik, Audra Almanaityte irakaslearekin batera, 17 piano-jotzaile eraman zituzten Danbolin musika eskolakoei. Modalitate ezberdinetan hartu zuten parte: bakarlari bezala aritu ziren 11 ikasle eta beste 6k lau eskutarako modalitatean jardun zuten.

Emaizak

Emaizta apartak lortu dituzte Orioko piano-jotzaileek eta gustura daude Danbolin musika eskolako irakasle eta arduradunak.

Guztira 11 urrezko dominarekin eta beste hiru zilarrezkorekin itzuli ziren Andoaindik oriotarrak. Bakarlari bezala, A mailan, Alejandro Camposek zilarra irabazi zuen; Miren Genova, Hodei Sanz eta Amaia Izagirrek, berriz, urrea. Izagirrek aipamen berezia jaso zuen gainera.

B mailan guztiek urrea irabazi zuten eta Ander Carrerak aipamen berezia ere bai. Gainontzekoak hauek izan ziren: Paula Argintxona, Ainhoa Bontigi, Borja Esnal, Mikel Etxarri eta Aitor Lizaso.

C mailan bakarlari bakarra izan zen, Jon Loidi eta, urrezko dominaz gain, aipamen berezia jaso zuen. Lau eskutara Iker Pielagok eta Unai Bontigik A mailan eta Uxue Alberdik eta Ainhoa Grijalbak B mailan zilarra lortu zuten; Goizane Bayilin eta Nora Pielagok, urrea.

LABUR

Bertsolaritza

Maia eta Zubeldiarekin afaria

Presoen aldeko bertso afaria antolatuta dute bigarren urtez jarraian Orion. Otsailaren 24an izango da eta Jon Maia eta Iker Zubeldia izango dira Balea elkartearen. Afari menua honakoa izango da: otarrainkak, piper beteak, baserriko oilaskoa, postrea, kafea eta kopa. Txartelak 25 eurotan daude salgai Gabon, Kolon Txiki eta Sara-sua tabernetan.

Irteera

Eski irteera Talai Mendirekin

Urtero bezala, aurten ere eski irteera antolatu du Talai Mendi mendi elkarteak, Orioko Udalararen laguntzaz. Otsailaren 25 eta 26an izango da elurretara bidaia eta otsailaren 17a baino lehen eman beharko da izena Uranga burdindegian. Irteeraren prezioa 85 eurokoa izango da eta prezioaren barruan mantenu erdia, 2 forfait eta autobusa sartzen dira. Asegurua ez duenak, derrigorrez egin beharko du eta 13 euro kostako da. Horrez gain, materiala ez duenak alkilatzea ere ordaindu beharko du. Luz Ardidenen eskiatuko dute.

Dantza

Musika eskolako emanaldia

Larunbat honetan, otsailaren 11n, arratsaldeko 18:00etan, dantza emanaldia izango da Karela kiroldegian. Bertan 180 dantzako ikasleek parte hartuko dute, 4 tik 13 urtera bitartekoek, Ander Errasti irakaslearen esanetara. Musika Eskolako instrumentuko ikasleek ere doinuak jarriko dizkiete dantzei. Dantza hauek egingo dituzte: Txulalai, Zapatain, Esku-dantza, Agintaria, Agurra, Bolant dantza, Alpargata, Belauntxingo Pello Joxepe, San Sebastian martxa, Banakoa, Barrikada eta hiru koreografia, kanta banarekin.



Taldekako mozrorrik onenak saria jasoko du desfilearen ondoren, baita bakarkako edo binakakoak eta karrozarik onenak ere. KARKARA

Mozorro desfileak, lehiaketak eta musika nagusi inauterietan

Esperientzia eskolako, gaztetxeko, ikastolako, Zaraguetako, Txurru-muskiko, tabernetako eta Udaleko ordezkariak elkartu dira guztien ideiekin inauteri parte-hartzaileak antolatzeko.

Mozorroak prestatzen, dantzan ikasten eta taberna nola apaindu pentsatzen ere ari dira gurean. Izan ere, inauterietan batera jai giroa etorriko da-eta herrira.

Orain arte, inauteri-larunbatean mozorro festa izaten zen kaleetan barrena, baina umeak batetik, eta gazte eta helduak bestetik aritu izan dira. Aurten, ordea, denak elkartzea pentsatu dute antolatzailleek eta herriko taldeak, ikastetxeak, elkarteak... Udalak egindako deialdiari erantzun eta inauteriak denek batera antolatzea erabaki dute. *Gaztetxekoak, ikastolakoak, Zaraguetakoak, esperientzia eskolakoak, Txurru-muskikoak, tabernariak eta Udal ordezkariak izan gara bileretan. Inauteri parte-hartzaileak egin nahi genituen eta hasieratik etorri da jendea, ideia askorekin eta gogoz; beraz, aurtengo inauterietan giro berezia izango dela uste dugu; behintzat asmo horrekin aritu gara lanean, esan digu inauteriak antolatzeko ardura duen Ekiñe Saizar zinegotziak.*

Eguerditik hartuko du Oriok inauteri usaina. Izan ere, epaileek herriko tabernetan bueltatxoa egingo dute, tabernak nola apainduta dauden ikusteko eta berezienei diploma bana emango diete, hiru guztira; parte hartzeko, hilaren 15a baino lehen kultur etxean eman behar dute izena tabernariak.

Desfilea eta koreografia

Arratsalderako, berriz, desfilea antolatu dute. 18:00etan, karroza eta guzti, Bikamiotan hasi eta Estropalari kaletik pasako dira gero; autopista azpirajoa ondoan, Arrantzale kalean geldialdia egingo dute aurretik prestatutako koreografia dantzatzeko. Desfileak aurrera egin ahal, beste geldialdi batzuk egingo dituzte dantzan aritzeko: ikastola parean, Ibai Ondon, Aritzagan eta plazan.

Koreografia ikasteko oraindik bada denbora, izan ere, hilaren 15ean entsegua izango da Kosta Tailerrean eta 17an Ametsa gaztelekuan; 19:00etan biak.

Azaltzerik ez dutenek karkara.com-en ere badute koreografia ikusteko bideoa.

Desfilean parte hartzeko edozein mozorro jantzi ahal izango da, baina antolatzailleek ahalik eta originalenak izatera animatu nahi dituzte oriotarrak. Hori bultzatze aldera, hiru sari emango dituzte amaieran plazan: karrozarik onenari, taldekako mozrorrik onenari eta bakarkako edo binakako onenari.

‘Zamorro txikiak’

Mozorroa norberak aukeratuko duen arren, aurtengo desfilean izango dira mozorro berezi batzuk: *zamorro txikiak*. Ekiñe Saizarrek kontatu digunez, *esperientzia eskolako bidez jakin genuen, nola garai batean, inauteriak baino bi aste lehenago zamorro txikiak ateratzen ziren Orion. Zaku burutik behera jantzita eta makila eskuetan hartuta kale izkiretan jendea joka ibiltzen ziren. Hori berreskuratzeko, zamorro txikiak izango dira desfilean, garai bateko ohitura hura ezagutzera emateko.*

Desfile ostean, jatekoa jarriko dute plazan eta txartelak aurretik izango dira salgai Kultur Etxean, Salatxon eta kiroldegian.



Astearte eta ostegunetan bateatzeko tunelean aritzen dira OBBko neskak. KARKARA

Areto sofbola, neguko hotza barrutik kentzeko modurik onena

Urtarriletik martxora bitartean Orioko Bate Bizkorrak taldeak areto sofbolean jokatzeko du. Seniorrak ezin dira etxean aritu, baina kadete eta jubenilek Euskal ligako partidak Orion izaten dituzte.

Kiroldegiaren ezaugarriak direla-eta ezin izaten dute seniorrek etxean jokatu areto sofbolean. Harmaila bakarria duen kiroldegia behar du izan horrelako kasuan, eta Karelana ez da hori betetzen.

Horregatik kadete eta jubenilen partidak baino ez dira jokatzeko kiroldegian eta Euskal ligako partidak jokatzeko dituzte Orion, bi astetik behin gutxi gorabehera.

Orioko Bate Bizkorrak taldekoek diotenez, areto sofbola oso dibertigarria da jokatzeko. Jokoa azkarragoa izaten da, partidaren iraupena 40 eta 60 minutukoa eta aldaketak eta abar askoz azkarrago egin behar izaten dira betiko sofbolean baino. Dena dela, gainontzeko arauak sofboleko berak dira.

Kadete eta jubeniletan taldekide ia guztiak oriotarrak diren arren, seniorren taldean dabiltzan ahizpa gazteek Orion jokatu nahi izaten dute. OBBk ez dizkie atek ixten eta Donostiatik eta Iruñetik etortzen dira jokalaririk horiek

gehienbat. Horrez gain, Iruñeko talde batekin hitzarmena du Oriokoak, haiek OBBn jokatzeko aukera izan dezaten. Hori dela eta, jokalariek behar dituzten bakoitzean, deialdian nafarrak sartzen dituzte. Orainsu, esaterako, min hartuta jokalaririk ez dago Orion eta oso ongi etorri zaie hitzarmen hori jokalaririk faltarekin ez sufritzeko.

Txapelketa

Denetariko emaitzak izaten ari dira Orioko Bate Bizkorrak Euskal ligan lehen erdian. Irabazi eta galdutako partidaren artean alde handirik ez dago eta liga nahiko estua izaten ari dela esan dute arduradunek.

Taldeak ohitzeko erabiltzen ari dira lehendabiziko zati hau, denboraldia martxan jartzen ari baita. Helburua Espainiako txapelketa sasoi puntu onenean iristea dute. Dena dela, sofbolean aritu nahi duten neska guztiak atek zabalik dituztela gogorarazten die OBBk.

LABUR

Pilota

Gomazko pala txapelketako

Aurreko urteetan sortutako giro polita dela-eta aurten ere gomazko pala txapelketa antolatzea erabaki dute. Izen ematea irekita dago otsailaren 13ra arte Karella kiroldegian. 20 euro izango dira bikoteko, kamisetak eta aseguruak or-daintzeko. Gutxienez bikoteko kide batek Orio edo Aiakoa izan edo bi herrietako batean bizi behar du. Izena ematen dutenekin hilaren 14an, 19:00etan bilera izango Orioko frontoian txapelketako nondik norakoak azaltzeko.

Arrauna

De Anta Espainiako onena

Urtarrilaren amaieran batzartu zen 2011ko arraun denboraldiko Espainiako saridunak erabakitzeko epaimahaia eta beste hainbaten artean, bere kategorian, Orio Arraunketa Elkarteke Edorta De Anta Espainiako arraunlari onena aukeratu zuten. Saria lehen hiruhileko honen barruan egingo den Kirolaren Galan jasoko du. Bestalde, 2012ko Paralinpiar Jokoetan, Londresen, izango da De Anta Bleden jokatzeko Munduko txapelketa arraun egokituari, skiffeari, harako txartela eskuratu ondoren.

Futbola

Manterola Euskadiko selekzioan

Jose Alvarezek eta Manuel Ociok aukeratu dituzte 18 eta 16 urtez azpiko Euskadiko emakumezkoen selekzioa futbolariek eta aukeratuakoen artean dago Real Sociedad futbol taldean jokatzeko duen Ainara Manterola Ikutza oriotarra. Espainiako Txapelketako bigarren fasean ordezkatu dute Euskadi. Bi selekzioak Mallorcan ari dira lehen otsailaren 9tik 11ra bitartean.

Saskibaloia

Euskadiko txapelketara

ZASTEko kadete nesken taldeak irabazi zuen urtarrilaren 28an eta 29an Orion jokatzeko lau finala. Ondorioz, Euskadiko txapelketa jokatzeko dute aurten eta 2012-2013 denboraldian Euskal ligan arituko dira. Taldean lau oriotar daude: Teresa Argibe, Sara Iparragirre, Maider Manzanask eta Elena Zaldua. Gainontzean, Alustiza Autobusak taldeak azken bi partidak galdu ditu, hala ere, mailari eusteko borrokan jarraitzen dute, otsaileko partidak kanpoan jokatzeko dituzten arren. Beste taldeak txukun ari dira, azken partidak garaipean izan eta gero.

“Talai Mendiren beste irteerek baino gazte gehiago erakartzen du eskiak”

Kimetz Uranga

Talai Mendiko kidea

Talai Mendi elkarte. Izenak berak dioen bezala, mendizaletasuna bultzatzen duen taldea da. Mendi ibilaldiak antolatzen dituzte eta, batik bat, jende heldua joaten bada ere, badira gazteak erakartzen dituzten irteerak ere, eskiatzera joatekoa esaterako.

IRATIAGIRREAZALDEGI

Otsaileko azken aste bukaeran joango da Oriotik talde bat Talai Mendi elkarteak antolatutako irteeran Luz Ardidenera eskiatzera. Irteera hori prestatzen aritu da, besteak beste, Kimetz Uranga Talai Mendiko kidea eta berak eman digu elkartearen eta irteeraren berri.

Nolako irteerak antolatzen dituzue?

Gu txikitari gurasoekin igandetan joaten ginen mendira. Gero hasi ziren GR ibilbidean barrena irteerak antolatzen eta ni orain ez naiz joaten, baina GRa egin dute, Gipuzkoari bira emanez, etapaka; Araba ingurutik Bizkaiko kostaldera ere beste ibilbide bat; abenduan ere mendi irteera eta babarrun jana egiten da. Guk, orain, eskiatzera joaten gara.

Aurtengoa noiz izango da?

Otsailaren 25 eta 26an Luz Ardidenera 50 lagun joango gara. Zalantza geneukan eskiatzera joan ala ez, orain arte elurrik apenas zegoelako, baina azken bi asteetako elurteekin ez dago aitzakiarik. Eski estazio txikia da eta badira urte batzuk joaten hasi ginela. Eskiatzeari mar-txa hartu diogu eta koadrila bakoitzetik taldetxo bana etortzen denez, han elkarrekin ibiltzen gara eta giro polita sortzen da. Larunbat goizean ateratzen gara, eskiatu eta hotelean afaldu, lo eta, gosalduta ondoren, igandean berriz eskiatzera. Materiala daukanak berea eramaten du eta, bestela, han alokatu. Izena emateko Uranga burdindegira joan behar da hilaren 17a baino lehen.

Gazteak bakarrik joaten zarete?

Talai Mendik antolatutako beste irteerak baino gazte gehiago erakartzen du eski irteerak. Mendira joaten diren asko ez dira eskiatzera etortzen. Gainontzeko irteeretara jende helduagoa joaten da, hainbat koadrilatakoak eta gustura ibiltzen dira elkarrekin.



Mendian orain dela 10 urte inguru hasi ginen gazteok, orain, gure kaxara ibiltzen gara. Piriniotara egiten genituen urtean bi edo hiru irteera eta mendirik altuenetara igo ginen: Aneto, Perdido, Vignemale...

Talai Mendin hasi zirenek jarraitzen dute elkartearen. Guk orain apenas egiten dugu irteerarik Talai Mendikoekin, eskiatzekoa salbu.

Arroilak ere jaisten zenituzten.

Lehen lagun artean joaten ginen arroilak jaistera eta gero Talai Mendirekin ere egiten genituen irteerak. Orain, mendira gero eta gutxiago joaten garenez, berriz era horretako planak antolatzetik ez dut uste. Orduan 20 lagun joaten ginen eta, arroila baterako asko direnez, arriskutsua ere izan daiteke.

“Orain, mendira gero eta gutxiago joaten garenez, arroilak jaistera bezalako planak berriz antolatzetik ez dut uste”

“Tbilbideak aukeratzerakoan denak joateko modukoak izaten dira; batzuk azkarrago eta besteak motelago, baina denak talde bat gara”

Mendizaletasuna kirol arriskutsua da?

Guk ez dugu kalte edo istripu handirik izan mendian, dena ongi atera izan zaigu. Iaz, eskiatzen, batek kokotsa ebaki zuen eta besteak eskumuturra hautsi, baina gainontzean ez dugu arazorik izan. Ibilbideak aukeratzerakoan denak joateko modukoak izaten dira; batzuk azkarrago eta besteak motelago joango dira, baina denak talde bat gara eta talde bezala funtzionatzen dugu.

Aurrerantzean beste era bateko irteerak antolatzeko asmorik?

Prestatu beharko genituzke eta gu ere hasi beharko ginateke mendira gehiago joaten, baina pixka bat alfertuta ere bagaude. Mendiak denetarik dauka. Mendira joatea erronka fisikoa izateaz gain, paisaiarekin eta giroarekin gozatzeko aukera ematen du, baita herritik alde egin eta deskonektatzeko ere, lasaitasuna, presarik eza, egun ezberdin bat pasatzeko modua ematen du mendiak. Inguruan Kukuarri, Ernio... daude horretarako; bere kasa jende asko joaten da.

Aiako berri

“Gazteek jakin behar dute modu asko dagoela aisialdia aprobetxatzeko”

Eneko Sanz

Gaztelekuko koordinatzailea

Xatur gaztelekua badoa pixkanaka bidean aurrera. Lehen pausoak eman eta gazteen aisialdiari ate berriak ireki ondoren, haurrek ere aisialdiaz gozatzeko beste baliabide bat prestatu dute, ludoteka, eta pixkanaka bi proiektuak sendotzen ari dira.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Gaztelekuko eta ludotekako koordinatzailea da Eneko Sanz. Astebukaeretan, Aiako gazteei, nolabait hutsik dituzten ordu horiek jolas eta ekintzekin betetzen laguntzen die.

Nola sortu zen gaztelekuaren ideia?

Hausnarketa egin zuten Udalaren eta Foru Aldundiaren artean, aisialdia probesteko eta haurtzarora eta gaztarora gozatzeko laguntza ematea helburu duen Gaztematika sistemaren baitan. Horretarako toki baten beharra zegoelako jarri zuten abian gaztelekua. Astegunetan, ikasketak eta eskolaz kanpoko ekintzak herriatik kanpo egiten dituzte gazteek, beraz, pentsatu genuen, aste bukaeretan Aiak ematen dituen aukerez baliatzea.

Gaztelekua norentzat da?

12 eta 18 urte artekoentzat da, baina fideleak 12 eta 14 urte bitartekoak dira. Gu-txi gorabehera 30 gaztek eman dute izena eta, arratsaldero, batez beste 15 etortzen dira. Larunbat eta igandeetan zabaltzen dugu, eta filmak daudenean, ostiral eta larunbatetan.

Zein da gaztelekuaren helburua?

Aian eta Aiagatik zer egin genezakeen pentsatzea. Horretarako, gazteei autonomia eman behar zaie, jakin dezaten aisialdiari etekina atera behar diotela eta horretarako modu asko dagoela. Orain arte, aste bukaeretan, frontoian egoten ziren eta, hotz handia eginez gero, kutzazain automatikoan hitz egiten. Zerbait falta zitzaion. Hasieran, gazteak erakartzeko bi irteera egin geni-

tuen izotz pista eta *paintball*-era, ikus zezaten badaudela gauzak haientzat, berriak diren arren, gertu dauzkatenak eta egin daitezkeenak.

Zer egiten duzue gaztelekuan?

Astebururo jolasak egiten saiatzen naiz: brileta, zapiaren jolasa... konturatu bainaz ordenagailuei edo *playstation*-ari buruz pila bat dakitela, baina garai bateko jolasak ez dituztela ezagutzen. Bestela, pultserak egitea, argazki tailerra... jarduera erraz eta arinak egiten ditugu. Gaztelekuan, hala ere, interneterako konexioa, *playstation*-a, futbolina... ere badaude.

“Astegunetan, ikasketak eta eskolaz kanpoko ekintzak herriatik kanpo egiten dituzte, beraz, aste bukaeretan zabaltzen dugu gaztelekua”

“Ludotekako nagusienek gaztelekua ezagutu dute eta, ludoteka harako bidean pauso bat denez, gogoz etortzen dira”

Hasieratik gauzak asko aldatu al dira?

Hasieratik ez diegu dena eskura eman, haiek ere egin behar dutelako zerbait. Bileretan egitasmoa landu eta orain dinamika hartzen ari gara. Gauza batzuk nekezagoak dira, izan ere, badirudi batzuek oraindik ez dutela ulertzen ez dugula lokal soil bat eskaintzen, ekintzak egin eta bultzatu behar dira. Aldaketa gazteen jarreraren ere izan da eta hasi dira gaztelekuko ekintzak bere egiten.

Ludoteka ere ireki duzue, ezta?

Eskaera zegoela ikusita, gurasoei proposamena aurkeztu nien eta zer egingo genuen esan: eskulanak eta sormena, irudimena... lantzeko jolasak. Ludotekara, oraingoz, bi astean behin joaten dira ostiraletan 6 eta 11 urte arteko haurrak. Nagusiek gaztelekua ezagutu dute eta badakite ludotekatik harako bidean pauso bat dela; beraz, gogoz etortzen dira.

Aurrerantzerako zein asmo duzue?

Proiektua sendotzea. Aisialdiak ematen dituen askotariko jarduerak aprobetxatu nahi ditugu: jolasak, irteerak, eskulan ederrak... Gaztelekutik herriarentzako ekintzaren bat egiteko asmoa ere badugu.





Elur-oreina eta azeria Altxerriko kobazuloko horman grabatuta. ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

Altxerriko irudien erreplika egiteko asmoa du Udalak

Altxerri kobazuloko margoak aurkitu zituztenetik mende erdia pasatu denean, Aiako Udalak hilerriko eremuan eraikin bat egiteko asmoa du, Altxerriren balioa gizarteratzeko.

Aurten beteko dira 50 urte Altxerri kobazuloko margolanak eta grabatuak aurkitu zituztela eta, urteurren hori ospatzeko ekitaldiren bat egingo badute ere, Udalak, aurrera begira, kobazuloko margoen erreplika egiteko asmoa du. Bertako arteari erreparatuta, Gipuzkoako kobazulorik garrantzitsuenetarikoa da adituen esanetan, baina herritarrentzat itxita dagoenez, argazkien bidez baino ez du ezagutzen jendeak.

Altxerriko ondarea aintzat hartuta –Paleolito garaiko irudiak daude, batik batik grabatuak eta, irudien artean, ohikoenak bisonteak dira–, ahalik eta gehien ezagutarazteko, kobazuloko pinturen eta grabatuen erreplikak izango lituzkeen eraikin bat egiteko proiektua prestatzen ari da Udala. *Erreplika xumea izango da. Inolako azpiegitura handirik gabe egin nahi genuke*, dio Igor Iturain alkateak. Horretarako, aurtengo aurrekontuetan 15.000 euro aurreikusi dituzte. *Infor-*

mazioa jasotzeko eta proiektua lantzen hasteko da kopuru hori, Foru Aldundian eta Eusko Jaurlaritzan gure asmoa aurkezterako, esku artean landutako zerbaitezateko.

Hilerriko eremuan

Hala ere, Udalak hainbat aurreikuspen egin ditu eta, asmoen arabera, hilerriko eremuan egingo lukete azpiegitura. Erreplika lurpean egingo lukete, eremu horretan dagoen malda bat aprobetxatuz. Eraikinaren barruko diseinua, funtzionamendua eta gastuak zehaztu gabe daude oraindik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak oniritzia eman dio aurreproiektuari eta, aurreikuspenen arabera, 2013 edo 2014rako bukatuko dute proiektua, Igor Iturain alkateak esan digunez.

Altxerriren balioa gizarteratzeaz gain, Aiara turismoa erakartzeko ere balioko duela uste du Iturainek.

LABUR

Kirola

Mendi lasterketa martxoaren 11n

Aiako kirol elkarteak antolatuta I. Mendi Lasterketa izango da martxoaren 11n. 11:30ean Aian abiatu eta Pagoetan barrena ibili ondoren, Aiara itzuliko dira korrikalariak; guztira, 8,2 kilometroko ibilbidea. Bukaeran, sariak banatuko zaizkie emakume eta gizonezko irabazleei, eta parte hartzaileen artean opariak zozkatuko dituzte. 16 urtetik gorakoek hartu ahal izango dute parte, eta izen ematea zabalik dago, 8 euroren truke www.herrikrossa.com helbidean. Egunean bertan ere, irteera tokian, eman ahal izango da izena 12 euro ordainduta.

Zergak

Ordainketa epeak

2012. urteko zergen zenbatekoa erabakita, Udalak jakinarazi du noiz kobratuko dituen. Otsailaren 1ean hasi zen trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga ordaintzeko epea, eta martxoaren 31 izango da azken eguna. Bestalde, urari eta zaborrari dagokion 2011ko laugarren hiruhilekoa ordaintzeko azken eguna martxoaren 3a izango da.

Zerbitzuak

Landare azokako kantina

Apirilaren 28an eta 29an Iturrarango parkean izango den Landare Berezien Azokan, jan-edaneko kantina jarriko dute lorategian. Zerbitzu hori eskaini nahi duten herritarrek otsailaren 25era arte izango dute izena emateko epea. Zerbitzuari eta aurkeztu behar dutenari buruzko informazio gehiago Iturraran parketxean jaso daiteke, 943 835 389 telefono zenbakira deituta.

Inauteriak

Eskolako ikuskizuna

Inauteriak direla-eta, otsailaren 17an, ostiralarekin, Lardizabal eskolako neska-mutilek mozzorro jaia egingo dute arratsaldean. 15:00etan hasita kalejira izango da eta, ondoren, frontoian egiteko ikuskizuna prestatu dute. Unibertsoa da aukeratu duten gaia eta musika eta dantza uztartuz eskainiko dute emanaldia. Festa amaitzeko, gurasoek prestatutako txokolata jan ahal izango da. Andatzako eskolan ere egun berean ospatuko dituzte inauteriak; horiek, ordea, goizez. Zeltiarren kultura izango dute gai nagusia, eta horren harira eskolako umeek dantzak eta jolasak egingo dituzte.

Gelditu al zara gaur arnasa hartzeko?

Hain oinarrizkoa. Hain erraza, baina, itxuraz, hain zaila era berean. Umetan ezin hobeto egiten dugu. Ez digute erakusten; baina, hala ere, bakarrik irteten da. Naturala. Erosoa. Erraza.

Baina hazten goazen neurrian, hel-tzen eta zerizana galtzen joaten gara. Eta, azkeneko, lardaskatu eta gaizki egitera ere iristen gara.

Halere, egunero bost minutu hartuko bagenitu, gure denbora baliotsuaren une txiki bat, dena lasaitzen duen sentazio atsegin hori berreskura dezakegu. Dena sendatzen duena.

Horretarako, begiak ixtea besterik ez duzu. Etzan lurtean buruz gora. Hankak eta besoak lasai aldebanatuta, gorputze-

ko gainontzeko zatiak ukitu gabe. Hasi zaitez arnasa sudurretik sakon-sakon hartuz, zure saihetsak norabide guztietara irekiz doazela sentituz. Haize guzti hori segundo batzuetan barruan mantenduz, eta, ondoren, dena ahotik bakarrik irteten utziz. Indarririk egin gabe. Presarik gabe. Denboraren neurririk gabe.

Haizea botatzen duzun bakoitzean saiatu zaitez zure gorputzaren pisua sentitzen. Nolaz haizea botatzen duzun bakoitzean gorputzak gero eta gehiago pisatuz doan. Eta nolaz, gero eta gehiago, lurrari itsatsita geratzen den. Zure gorputza, lurra eta airea bat egin arte.

Kezkek ez dute lekurik inguru horretan. Pentsamenduak isildu egiten dira. Eta dena isilik geratzen da. Isiltasunak

besarkatu eta mimatzen zaitu. Zu maitatzen utziz, zaintzen utziz. Arnasa hartzen, botatzen, pisatzen...

Pixkanaka, egunero praktikatuz, zure atentzioa benetan garrantzitsua den gauzetan zentratuko da. Zeresanak alde batera utziz. Zure burua hain serio hartu gabe. Besteenak bost axola. Besteek pentsatzen dutenak ere ez, bost minutu horietan behintzat. Gero ez daukagu besterik. Lurra ukitu eta errealtatera itzuli behar.

Baina, beharbada, beste ikuspegi batetik. Tartetxo horren ondoren, ziur aski, denari aurre egiteko hobeto. Jarrera ireki eta malguagoarekin, prest eguneko erronka berriei aurre egiteko.



Txokoak eta jendea Eskola txikietako gurasoen urteurrena

Gipuzkoako Eskola Txikien Gurasoen Elkarteko 25. urteurrena ospatu zuten urtarrilaren 28an Andatzan hainbat herri txikitatik gerturatutako 100 lagun inguruk. Mendi ibilaldia egin ondoren Andatzako gurasoek pintxoak banatu zituzten. Bestalde, Igeldoko arrano-etxetik ekarritako hegaztiak ere askatu zituzten.

2GURPIL

Barrutic 2 - 3 - 20010 Ormaiztegui (Gipuzkoa)

Tel: 943 333 880 | www.2gurpil.com | http://www.2gurpil.com

agirresarobe
PROIEKTUAK, OBRAK ETA ERREFORMAK

- OBRA BERRIEN PROIEKTUAK
- ETXE ETA LOKALEN ERREFORMAK
- FATXADEN ERABERRITZEAK
- IGOGAILUEN PROIEKTUAK
- GREMIO KOORDINAKUNTZA
- INFORMEAK, OBRA LEGALIZAZIOAK, ...

ITURRIBIDE 8, 5. BULEGOA, ZARAUTZ
SORJA AGIRRESAROBÉ, ARKITEKTOA 635 731723

Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net

ARKAITZ Taberna

Pintxoak, plater konbinatuak eta ogitarleko mundialak

ABESLARI KALEA, 11 | Tel: 943 83 16 57

TANATORIO ZARAUTZ
EUROFUNERARIAN TALDEA

Hilata eta zerbitzu orokorrak

- Dena eta probintziako ospitaleetan
- Aldiaroko zerbitzuak
- Belatorio gelak
- Korriak, eskelak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarautz

Tel: 943 83 84 37 | Fax: 943 83 48 48
e-mail: harragip@harragip.net

Azkue

Tf: 943 13 04 38

Allianz

Marigre Zaldua
aseguru agentea

Itziarri Kalea, 10 Baito-Ormaiztegui
Telefonoa: 943 13 47 90
Fax: 943 13 67 52
e-mail: zaldua.dolores.pa@allianz.es

ANTILLA
jatekatea

Araba kalea, 29 - Tel: 943 83 29 00

argine

www.lasernet.com/argine
Tel: 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA UGARIEN TXARTELAREKIN

azkue karrozeria

Ubegun Industrialdea, 7 | 20800 Aia-Ormaiztegui
Tf/fax: 943 83 51 86 | Carroceriasazkue@hotmail.com

Automóviles ZARAUTZ

ETXEN ZERBITZU OROKORRA

ZARAUTZ, Tel: 943 13 13 50

Dorronoro Denda

196etik zure eskuetan

AUKERA HANDIAGOA FRUTATEGIAN

Tel 943 83 09 37

BARAKA
ostalo berria

Kaizerriaren / Platerak / Plater konbinatuak / Etxeko janaria

943 13 15 12
Aizua

SARASUA ERRETEGIA


Plater bereziak: Arrain zopa, Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 | ORIO | Tel: 943 83 00 05 / 943 13 25 32

Galeña I

Igo zaituzte haize borrietara!

943890116-677149934
galeña.oria@hotmail.com



“ILUSIOA, LANA,
HARROBIA,
GRINA,
APALTASUNA...
HORIEK DIRA
GURE BALIOAK”



Orio Arraunketa Elkarteko egoera berria ezagutzeko asmoz hitz egin dugu haiekin, **zuzendaritza batzordearekin lehendabizi eta Igor Makazagarekin** ondoren, urtarrilaren 31n eta otsailaren 2an. Denboraldia hasi da eta otsailaren 25ean Arraun Eguna izango dugu Orion.

TESTUA: IKER GURRUTXAGA
ARGAZKIAK: KARKARA

Asteartetan biltzeko ohitura dute arraun elkarteko zuzendaritza batzordekoek. Hitzordua 19:00etan jarri genuen plazan eta, iritsi ginenerako, talde erdia-edo zain geneukan. Udaletxeko teilatupeko gelara joan ginen, han egiten baitituzte bilerak.

Zuzendaritza taldea

Lan talde zabala du batzorde berriak. Guztira 19 lagunek osatzen dute eta talde moderno, gazte, anitza eta dinamikoa dela diote haiek berek.

Ibon Huegun Bengoetxea dute buru, eta Jose Luis Loidi eta Joxe Ramon Ga-

rate presidenteordea alboan ditu. Idazkari lanetan, berriz, Iñaki Arostegi ari da.

Lau urterako konpromisoa hartu berri duen batzordeak, hala ere, taldetan banatuta egingo du lan. Alde batetik, publizitateko taldea osatu dute, babesle pribatu zein publikoak lortzeaz arduratuko dena. Bestetik, administrazio taldea dute, eguneroko lanak (lizentzien tramitazioak, korrespondentzia...) egingo dituenak. Hirugarrena ospakizunen taldea da eta horiek urtean zehar antolatzen dituzten ekintzaz arduratuko dira. Laugarren taldearen egitekoa arraunlariek egin beharreko bidaiak eta behar duten arropak antolatzea izango da. Azkenik, besteak beste, *merchandi-*

sing-az eta interneteko atariaren ardura izango duen bostgarren bat ere bada.

Atal teknikoaren ardura guztia Igor Makazagaren eskutan utzi dute.

Balioak

Aurkezpen egunean bertan esandako balioak nabarmendu ditu berriz ere talde berriak. Ilusioa, lana, kuedaketa serio eta profesionala, harrobia, kirol egitasmo lehiakorra, grina eta apaltasuna dituzte oinarritzko balioak.

Harrobiak egin du handi Orio Arraunketa Elkartea, eta argi daukagu harrobia izango dela Orio lehen mailara itzuliko duen lehengaia, esan du Ibon Huegun presidenteak. Gaur egun, arraun munduan nagusitu den logikak, diru guztia

traineru bakarrean inbertitzearenak, etorkizun mugatua duela uste dugunez, gure apustua bestelakoa da. Egitura ekonomiko sendo eta bideragarria izatea beharrezkoa dela badakigun arren, ditugun 170 arraunlariak mimatzea da lehentasuna.

Bazkide kanpaina ere egin zuten, eta bazkide-kopuruak gora asko egitea lortu zuten. Bazkide-enpresa ugari ere lortu dituzte, 5 izatetik 20tik gora izatera pasa dira. *Agian ez gara ate guztiak jotzera iritsi, baina aterik jo ez eta gurekin bazkide-enpresa egin nahi duenik baldin bada, besoak zabalik hartuko dugu.*

Batzar nagusia martxoan egin nahi dugu. Dena lotu nahian gabilza ordurako, eta orain Arraun Eguna erekin burubelari gabilza, baina martxoaren erdirako-edo deituko dugu batzarra.

Teknikazio zentroa

Udalarekin harreman zuzena dute eta astero elkartzeko dira teknikazio zentroaren inguruan hitz egiteko. *Apirilamaitzerako bukatuta egongo dela esaten digute, eta jarraipena egiten ari gara egunez egun.* Bitartean, lehengo egoerarekin segitzen dute: Ortzakan dituzte ontziak eta Karelan egiten dituzte gimnasioko ariketak. *Eskertu beharrean gaude bai Udalari eta baita ikastolari ere beren eraikuntzak uzteagatik. Udalari bilerak egiteko gela uzten digulako, eta ikastolari haurren azterketa medikoak bertan egiten utzi zigulako.*

TKEaazia

TKEko azken batzarrean bazkide berrien onarpena bozkatu zen. Bertan Portugalete eta Zierbena onartzea erabaki zen, Orio eta Camargo TKEtik kanpo utzita, aurretik onartuta zegoen kautelazko neurria kontuan hartu gabe. Horrela, epaileak Urdaibai TKEtik kanpo uztea erabakiko balu, Oriok eta Camargo ez lukete jadanik bertan jarraitzeko inolako eskubiderik izango.

Ondorioz, Camargo eta Oriok helegitea aurkeztu dute, ez baitaude ados azken bozketa horrekin. Kautelazko neurria oraindik indarrean dagoela ulertzen dute, TKEk ez baitu gai horri buruz inolako erabakirik hartu.

Guk garbi daukagu maila uretan galduta dugula eta, alde horretatik, arraunlariak KAE-1 ligan lehiatu beharko dutela esan diegu. Baina guk probokatu ez dugun egoera baten aurrean gaude eta Orioren interesak defendatuko ditugu. Kautelazko erabakia bertan behera uztea bozkatu eta gehiengoak hala erabakitzen badu, ados. Baina, oraingoz, hori ez da egin. Ondorioz, oraindik kautelazko egoeran gaudela ulertzen dugu.



“Harrobiak egin du handi Orio Arraunketa Elkarteak, eta argi daukagu harrobia izango dela Orio lehen mailara itzuliko duen lehengaiak” —Ibon Huegun

“Egitura ekonomiko sendo eta bideragarria izateak beharrezkoa direla badakigun arren, ditugun 170 arraunlariak mimatzea da beharrezkoa” —Ibon Huegun

“Kautelazko erabakia bertan behera uztea bozkatu eta gehiengoak hala erabakitzen badu, ados. Baina, oraingoz, hori ez da egin. Ondorioz, oraindik kautelazko egoeran gaudela ulertzen dugu” —Ibon Huegun

“Hamar urte dira Oriora etorri nintzela. Jendeak beti errespetuz tratatu nau eta, tartean behin, *hik hemen behar huke* esan dit batek edo bestek, baina beti broman hartu dut. Orain ere errespetuz tratatzen naute” —Igor Makazaga

“Oriok 50 arraunlari izanik, ahalik eta estropada gehienetan egon behar du, guztiak egin behar dute arraun. Hortik aurrera? Estropada guztietan itxura ona ematen badugu, pozik egoteko moduan gara” —Igor Makazaga



FESTA HANDIA OTSAILAREN 25EAN

Orioko jaitsiera traineruen aurreboraldiko zita garrantzitsua da oriotarrentzat azken ia 20 urteotan. Azkenaldian, larunbat arratsaldean jokatu da estropada hori, baina, aurtien, egun berezia antolatu dute Orio Arraunketa Elkarteak eta Udalak.

Goizetik hasita arraunaren inguruko festa izango da herrian *Arraun Eguna* deitu duten honetan.

11:00etan ume jolasak izango dira plazan. Orduerdian beranduago, 11:30ean, ikastola aurreko plazan, *Eusko Label sagardoaren ginkana* deituriko kirol proba izango da. Hondarribia, Ondarroa, Orio, San Pedro, Zarautz eta Zumaiako taldeak izango dira han elkarren arteko lehiak. Hiru proba egingo dituzte: ergometroan, lokotx biltzen eta arraunari buruzko tribiala eta sagardo botatzea. Ergometroan talde bakoitzeko arraunlari emakumezkoa eta gizonezkoa arituko dira, lokotx biltzen talde bakoitzeko patrioiak aritu beharko du, eta tribialean eta sagardo botatzen, herrietako alkateak.

Eguerdian sagardo dastaketa eta *Egusenti* otxotearekin kantu-jira izango dira eta traineruak autopista azpian egongo dira. Jaitsierako irabazlea asmatzeko porra, arratsaldeko 16:00ak arte izango da zabalik, izan ere, 17:30ean hasiko da estropada. Babyauto arraun elkartearen babesleak emandako bandera izango da jokoa. 19:00etan egingo da sari banaketa plazan eta, segidan, herri arteko sokatira desafioa izango da. 21:00etan herri afaria izango da frontoian, 20 euroren truke-txartelak tabernetan daude salgai. Gauean, plazan izango da festa, 23:00etan karaokea izango da eta, atzetik, Xabi Arostegi DJaren emanaldia.

Bai iluntzean eta bai gauean Arraunketa Elkarteak txosna bat jarriko du plazan.



“Lasai hartu eta denok batera egingo dugu aurrera”

Igor Makazaga

Arraun elkarteko kirol arduraduna

Pasaian jaio zen Igor Makazaga, 1972an, eta urte bukaera arte ez ditu 40 urte beteko. 1988an hasi zen arraunean San Juan elkartean, eta 2006a arte geratu gabe aritu da tostetan. Entrenatzaile izan ditu, besteak beste, Joxe Luis Korta eta Luis Mari Olasagasti *Luxia*.

Pasai Donibaneko txalupa KAE ligan zela, berriz ere etxera bueltatzeko eta arraunean hasteko erabakia hartu zuen. Arraunean nahikoa ez, eta entrenatzaile lanak ere egin ditu han. 2007an KAE ligara jaitsi berritan hartu zuen taldea, 2009an lortu zuten TKEra itzultzea. Orain Oriora etorri da eta harekin arituko gara berrikeretan.

Nola hartu zenuen erronka?

Igor Makazaga: Hasteko eta behin, esan beharra dago nola sortu zen aukera. Lau urtez aritu nintzen han eta eman nezakeen guztia emanda zegoela iruditu zitzaidan. Beste eskaintzak izan nituen kanpoko klubetatik, baina ez nuen ikusten nire burua autoa hartu eta autopistan kilometroak eta kilometroak egiteko. Orduan, arrauna uztea erabaki nuen eta erabakia publiko egin zen. Horren atzetik etorri zen Orioren aukera. Klubaren egoera halakoa izanda, ez neukan argi; baina, behin zuzendaritzako kontuak argituta eta aukera garbia zela ikusita, bi aldiz pentsatu eta baietz esan nion.

Dena dela, urte asko Orion.

I.M.: Bai, hamar urte dira Oriora etorri nintzela. Jendeak beti errespetuz tratatu nau eta, tartean behin, *hik hemen behar huke* esan dit batek edo bestek, baina beti broman hartu dut.

Hamar urte, baina diskrezioz.

Bai, pertsona diskretutzat dut nire burua; agian horregatik, asko ez dira jabetu Orion bizi nintzenik, San Juanen entrenatzaile izan arte.

Behin klubari baietza emanda, lan-taldea osatu behar.

I.M.: Egia da, eta hor asko eskertu dut nirekin izan duten jarrera. Kirol arloa guztiz nire eskutan utzi dute, eta horrek asko esan nahi du niretzat. Nirekin bi entrenatzaile laguntzaile izango nituela argi neukan, eta nire ideiekin bat egingo zutenen artean egokienak, Mikel Portu-larrume *Paorra* eta Miguel Angel Millares zirela pentsatu nuen. Ondoren, pres-tatzaile fisikoa behar nuen eta beste oriotar bat aukeratu nuen horretarako: Unai Amenabar. Bere metodoak atsegin ditut eta gustura nago egiten ari garen

lanarekin; elkar oso ondo ulertzen dugu eta entrenamenduak egokiak dira. Hari laguntzeko Iñigo Mujika arraunlaria ere talde teknikoan dugu. Azkenik, Eder Etxeberria, elkartean hainbeste urte eman dituen emakumea ere arlo fisiologikoaz arduratzen da, taldeko medikua bera izango da.

Lan-talde handia, arraunlari talde handiarentzat. Jende asko aurten, ezta?

I.M.: Bai, 50 inguru arraunlari bildu gara seniorretarako. Jende pila bat da eta dugu lan-taldea beharrezkoa da halako plantilla ondo gobernatu nahi bada.

Helburuak markatzen hasita?

I.M.: Helburua garbia da: Orio merezi duen lekura bueltan eramatea. Traineruen liga nagusira igotzea biziraute kontua da, han dago telebista, han lortzen dira babesleak... Baina ez diogu beste lehiaketei muzin egingo. Oriok 50 arraunlari izanik, ahalik eta estropada gehienetan egon behar du, guztiek egin behar dute arraun. Hortik aurrera? Estropada guztietan itxura ona ematen badugu, pozik egoteko moduan gara.

Hasierako emaitzekin gustura egoteko moduan zaudete. Ez al da horrela?

I.M.: Bai, zalantzarik gabe. Emaitza onak dira. Traineruarekin izan da jendearen bistarako sorpresa pozgarriena, lehen estropadan bi traineruek emaitza onak lortuta. Oraindik ez ditugu A eta B traineruak zehaztu, mutilak hobeto eza-gutzeko denbora gehiago behar baitut.

Hilaren 25ean izango duzu lehen proba gogorra, Orioko estropadan. Urduri?

I.M.: Ez, oso lasai nago. Eta arraunlariei ere lasaitasun mezua eman diet. Ezin gara kezkatu denboraldi hasieran, lehen emaitza ona izan bada ere, gorabeherak izatea normala da. Egokitzen ari gara, erreminta berriak, arraunketa berria, entrenatzeko metodo berriak... Beraz, estropada jokatu dugu eta emaitzak lasai aztertuko ditugu ondoren.

Baina izen handiko arraunlariak dituzue jendearen bistarako.

I.M.: Talde bat gara, eta guztien artean atera behar dugu hau aurrera. Erakutsi dugu azkar ibiltzeko gai garela, baina egokitzen fasean gaude eta nire lana epe ertain-luzerako da. Agian, hurrengo urtean ez naute hemen ikusi ere egin nahi, baina ni ez naiz etorri segituan gora egiteko. TKEra igo behar dugu, baina luzera begira ere lan ona egin behar da. Azkar gora egiten duenak, normalean, azkar egiten baitu behera ere.

Pazientzia eta lasaitasuna, hortaz?

I.M.: Bai, emaitzak etorriko dira. Azkar ibiltzeko gai garela erakutsi dugu. Orio ezberdina da, hori jakin badakit; baina mutilak egoera zailetik datoz, eta herriak ongi erantzun du.

Ekueadorren dago Quito

Ez det nahi eta kito! Eta kito!
Esan dit semeak, eta lau urte
ditu. *Eta kito? Ekueadorren
dago Quito!* Esan diot nik.
Brometan, baina serio. Serio,
baina brometan. Azken hitza berakez
daukala nolabait adierazi egin behar!
Eta kito horri beste *eta kito* bat erantsi
egin behar. Puntuari jarraian beste pun-
tu bat... baina horiek eten puntuak dira
eta ez da komeni halako egoerek etenik
ez izatea. Frigorifikoa, labadora eta aspi-
radora instrukzio liburu eta guzti sartu
ziren gurean baina... haurrek ez dute ha-
lakorik ekarri. Beraz, denborak irakatsi
dit *eta kito* horien aurrean pixka bat Za-
nussi izaten. Frigorifikoa izaten. *Eta kito*
hori ez dela labadoran garbitzen *Fago-*
rez eskatuta ere. Aspiradorak ez duela
zurruputzen hitz hori. Beraz, geronek
idatzi behar egunez egun *cómo ser pa-*
dres. *Eta kito*.

Halakoetan gogoratzen naiz zein
errespetu genien eta diegun aitari eta
amari. Etxean lanean nola ikasi genuen.

Etxeko lanak ez ezik, ukuilukoak ere egi-
ten. Bizitzan obligazioak ere bazirela.
Hezkuntzaren lehen harria, oinarria,
etxekoa da. Etxean hasten da pertsona
eraikitzen. Gero ikastolara joan ginen
lau anai-arrebok. Han ikasi genuen ira-
kasleari errespetua izaten. Hainbeste
kostatako eraikin horren adreilu bako-

**Halakoetan gogoratzen
naiz zein errespetu genien
eta diegun aitari eta amari.
Etxean lanean nola ikasi
genuen. Etxeko lanak ez
ezik, ukuilukoak ere
egiten.**

tzean gurasoen izen-abizenak zeudela
idatzita. *Aturri-Ebro, Zuberua-Maule,
Ekueador-Quito, How are you? I'm fine,
thanks; and you? Do-re-mi..., pretérito
pluscuamperfecto, Oria-zoria-noria-his-*
toria... Ikasi genuen ikasten. Izaten. Sa-
rituak eta zigortuak izaten.

Ikastolako irakasle batek esaten zidan
orain gutxi, *ni-ni*, belaunaldiaren aurre-
an ez ote gauden. *Ni trabajo, ni estudio*.
Ni eta ni. Semeak oraintxe eskatu digu
euro bat ikastolara eramateko Lodosako
ikastolaren alde. Sahararako janari bil-
keta ere egin berri da bertan. Ikastola ari
zaie balioak transmititzen. Baina gure
haurrek hartuko dute mezua? Ondo ari
al gara oinarria jartzen etxean? Nola ira-
katsi etxeko lanak ez ezik, ukuiluko la-
nak egiten, baina ukuilurik gabe? Ardiek
errape bat, baina bi titi dituztela? Obli-
gazioak eskubideak bezain garrantzi-
tsuak direla? Gurasoei eta irakasleei
errespetua zor zaiela? Ekueadorren da-
goela Quito? Gure niniak ez al dira *ni-*
niak etorriko?



Sinmas, tope!

Aurreko alean lagunak zioena irakurriko zenuten. Usularen uztaiak gora eta behera, han jardun zitzaigun *Harmailetik* didaktiko hartan. Eta ideia eman dit: Garbiri testigua hartzea. Ez dakit oraingoa oso didaktikoa izango ote den, baina ekarpen lana egin nahiko nuke, gazteen hizkeraz jardun nahiko nuke eta besteak beste.

Badakizue, hortxe nabil egunero eraikin berri *gerreroan*, hormona *partyaren* erdi-erdian: DBHn, alegia. Ilargi erdi itxura duen habitat kurioso hori, gainera, talde jakinek betetzen dugu: guraso, irakasle eta ikasleek. Gurasoak alde batera utzita, irakasle eta ikasleez arituko naiz. Bereziki haien hizkeraz: gazteen hizkeraz. Bagaude eta irakasle gazte batzuk.

Eta irakasleok hiztun onak izaki, hitz eginarekin hitz eginez, hanka sartzek ere egiten ditugu. Bestela, galdetu 12-16 bitartekoei! Gure hanka sartzek ametitu ondoren, eta hori aurretik esanda doala, ikasleetara mugatuko naiz. Izan ere, horien ahotik irteten diren hitz batzuek bereziki *piiüüü!* egiten digute belarrian. Egunerokoan entzuten ditugu holakoak: *fangota, pelok, engordatu...* Belarrian min egiten digute batzuk, eta guk, gazte-helduok, ez ditugu gureak egin, ez dira *guay*. Baina usetekabeen, nahi ala ez, badaude beste batzuk hartu ditugunak. Horren adibide: *sinmas*.

Oso hedatua dago *sinmas* hori. Zaharrenek diote *sinmas*; helduek, *sinmas*; gazteek, *sinmas*; haurrek, *sinmas*. KARKARARI ere egingo nioke proposamena bere estilo hiztegian sartu dezan. Horrela, Orion ez ezik, Euskal Herri

Ez dakit, gertugokoa egiten zait, jatorragoa delako-edo: tope normal, tope ondo, tope erraza... Grazia egin zidan ikasle batek esan zuenean: 'Funtzio honen izate eremua tope normala da'.

osoan eta atzerrian dauden euskaldunek ere erabiliko lukete. Bestela, altxa dezala eskua inoiz *sinmas* esan ez duenak. Portzieto, inork ba al daki zehazki zer esan nahi duen? Eskertuko nuke zuen laguntza, ez bainuke bere definizio zehatza ematen asmatuko. Gainera, esan beharra dago ezin dela *sinmas* besterik gabe erabili, garrantzitsua da eta "i" horretan azentua jartzea.

*Sinmas*ekin batera, gure ez dakit baina nire egin dudana *tope* da. *Tope* gehiago gustatzen zait. Ez dakit, gertugokoa egiten zait, jatorragoa delako-edo: *tope* normal, *tope* ondo, *tope* erraza... *Grazia* egin zidan ikasle batek esan zuenean: *Funtzio honen izate eremua tope normala da*.

Ez nuke aipatu gabe utzi nahi, *mitiko* edo *tipiko*. Bi aldaerak ere onartuak ditu gaztetzaikiak. Bata zein bestea hitzetik hortzera erabiltzen dute edo dugu: *mitiko* hau, *tipiko* bestea... Berdin dio zer esan nahi den, zein esaldi osatu behar den, aurretik *mitiko* edo *tipiko* jarri, eta aurrera!

Horiez gain, badira ate joka ari zaizkigun topónimoak ere. Txikiari hainbeste gustatzen zaion *plazoleta* bezala, *tope* sartuko zaigu laster *kanpito* berria. Kontuz, epidemia zabaltzera doa! Bai, bai, *sinmas*, laster asko erabiliko dugu: *kan-pi-to*. Entzunak baititut ahots gazteak esaten: *Non geratuko gara? Kanpiton. Kanpito*k behintzat definizio zehatza badu: ilargi erdi formako eraikin *gerreroaren* aurrean dagoen kirol-gune txikia, *OE* sinadura eta guzti.

Eta horrelako hitzen -hitzen-edo- adibideak asko daude. Hauek niri bururatu zaizkidanak. Eta fauna hormonatuaren erdian, sarri etortzen zaizkit gogora zalantzak eta hemen galderak: hitz horien erabilera bultzatu egin behar da? Geure egiten jarraitu behar dugu? Hasieran aipatu dut nireak ekarpen lana izan behar zuela, eta hor zalantza argitzeko, hizkuntzako irakasleentzat. Bestela, *mitiko sinmas*, *kanpito* edo *plazoletan*, *tope* azalduko dit baten batek; Manterolak Usularen uztaiekin egin zuen bezala.

CVa lantzeko, non baino...

Joan den udan Ingalaterrako hiri handietan izan ziren kale istilu lantzas lasaitu ondoren, erraz etorri ziren gazteak gutxies-teko komentarioak, baina bestelako bi kontu ere aipatu izan dira behin eta berriro.

Bat, gazteek elkartzeko espazio bat ezinbestekoa dutela, gizartean parte direla sentituko badute.

Bi, gaur egun, nahiz eta gazteek titulu gehiago dauzkatzen, lana topatzea zailtzen ari denean, prestakuntza estimatuenetako bat dela, hain zuzen ere, ardurak hartu izana gazteak dabilzan leku eta elkarteetan. Zer eskatzen da gaur egun enpresa batean tituludunen artean bat aukeratzeko? Bada, talde lanetan iaioa izatea, entzuten eta negoziatzen jakitea, ardurak hartzeko prest egotea, irtenbideak bilatzen abila izatea, buroia irekia edukitzea...

Beraz, alboratu behar dira helduon susmo txarrak eta alferrikako kritikak. Herriar sendo eta zentzuzkoak egiteko -eta horrek ez du esan nahi guk bezala pentsatuko dutenik!-, ardurak hartzen eta kudeatzen dakitenak izateko, jarraitezen gazteek gestionatutako leku eta elkarteetan alde. Gaurko gazteek *curriculum vitae*-a gorpuzteko eta herriar helduagoak lortzeko, metodo egokiagorik ez dago eta!

libe
dietetika
elkadura aholkularitza

eruko gudariak 35 :: ORIO
(santxo Aranzak kalea) 943 53 64 94 :: 697 23 86 56
ibegamenda@gmail.com

TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA S/L
INDUSTRIAL - BILBOA

Santiago Ouzoa - 18 postakutxa
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIPUZKOA

TMM

R
Rég. Ind. 150 0000

EURE
EURE

Estorako balbula
AENOR kalitate ziurtagiriduna

URAITZ
burundegia
burundegia

Eraketa 1 - 7540478418 07

URANGA
 burundegia
 Opari, menaje eta errematikak
 feruranga@euskalnet.net
 Telefax: 943 831236 Eusko Gudari, 5

tel/fax: 943 89 00 69
 Bidaia eta 4 - 28.000 ZIRAUZ

 (TURGINTZA, BEROGINTZA, GASA, BAINU, ERAKUSKETA)
 Pasaia, 10 - 48900 ZARAGOZA

XABIER URRETABIZKAIA

- Instalazio elektrikoak
- TDT antenak
- Ate-zain automatikoak

60 urte zerbitzua ematen

☎ 943 83 17 74
 Arrantzale, 31 - 20810 ORIO

Maidar Arrillaga Sarasola - 138. Kcl. zenb.
 Arrantzale 63 - 20810 - Orio - Gipuzkoa
 Tel. 943 575 361

oinarri
 FOODOLOGIA ZENTROA

Orioko
 Ogiak

ORIOGI

OPILOKINDEGIA
 frontoi ondoan
 Ifnoa: 943 83 01 89

PATXI OLIDEN

Hemengo haragia.
 Etxeko produktuko: tripa, odolki, bokarra, harriz, krokatak...

Eusko Gudari, 25 - Tel. 943 83 00 10

iñaki argazkiak caperochipi

ezkontzeka asmorik bai?

www.ikapero.com/ezkontzak
 659378751
 ikapero@ikapero.com

kotixi
 kafetegia
 GOSARI GOXOAK

Arantzale, 20810 Orio
 11:00-13:15-17

943 83 09 86

KOASTA

Wifi zerbitzua
 Kopak, gau giro aparta...

Portu
 ERREMEGI

Santo Estreko Aldea, 26
 943 89 4434
 20809 AIA-ORIO

*burdink burdink oinarri
 moztu erdink erdink moztu*

KOLON TXIKI
 burundegia
 burundegia

Herriko Eparantzara, 4
 ORIO
 Tel. 943 83 00 44

LURDES
 BURUNDEGIA



Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

Lizaso
 dekorazioa



Eusko Gudari, 41
 Tel. 943 83 07 34 Fax: 943 83 07 35

Sagasti
 LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI
 Tf / fax: 943 13 00 77
 sagastileihoak@telefonica.net
 Arrantzale kalea, 65
 20810 Orio (Gipuzkoa)

Hezpandegia
MARIJO

 Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - bujo
 Tel. 943 13 47 29
 ORIO

LOBETXU JATEKAK



Eusko Gudari, 18 - Tel. 943 83 00 07

FISIOTERAPIA - Garbiko Artzegei eta Nabalde Wareszen
 NUTRIZIONISTA - Garbiko Aizpuru

sinergia Investigacion fisioterapia

Ibal ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 - 685 71 85 95

Gaia emanda

Zein iritzi duzue aurrekontuen inguruan?

309. KARKARAN Bildu eta Orainen proposamenak ekarri genituen.
EAJri ere tartea eskaini diogu aurrekontuen inguruan duten iritzia azaltzeko.

Lehen txarra, orain okerragoa

Nilabeteak daramatzagu oriotarrei ohartarazi nahian gaur egun daukagun udal gobernuak agindu zuen aldaketa hura iruzurra izan dela, Beñat Solaberrieta alkate jartzeko motibazio hura ez zela benetakoa. Egia esateko, aldaketak noski izan direla gobernatzeko moduetan, baina okerrera nabarmen. Eta honako hau adibide bat baino ez da. Udal aurrekontuak onartzeko eraman den prozedura kronologikoa:

—2011/12/21, Bilduk herritarrei aurrekontuen proposamena aurkezu zien Kultur Etxean –sarrera eta gastuen aurreikuspena 10.050.000€–.

—2011/12/26, Hazienda eta pertsonaleko batzordean aurrekontuak garatzeko prozedura martxan jartzen zela jakinarazi zuten. Batzorde horretan EAJk idazkari-kontuhartzailearen txosten bat eskatu zuen; bertan, aurrekontuen zirriborroan azaltzen ziren sarrerak errealitatearekin bat zetozela ziurtatu zuen, urtean zehar desfase handirik egon ez dadin. Alegia, etxe guztietan egiten den ekonomia, irabazten dudari ruaren arabera, horrenbeste gastatu ahalko dut. Sarreraren atala puztuta aurkeztu ziguten susmoa genuen.

—2012/01/09ko astean EAJ eta Bildu bilera bat egitekotan gelditu ginen, aurrekontuen inguruan eztabaidatu eta akordioetara iristeko, baldintza bakarrarekin: abenduaren 26an eskatutako txostena esku artean izatea. Bilduk bilera egitearen beharrean tematu zen eta guk bilera egiteko txostena izatea ezinbestekoa zela genioen.

—2012/01/19an EAJk hurrengo astean txostena egon ahal izateko ahalegin berezia eskatu zion alkateari. Izan ere, alkatea da Udaleko arduradun nagusia eta hari dagokio han egiten den lanaren jarraipena egitea.

—2012/01/25, txostena jaso genuen –bertan arrazoia ematen digute– eta baita hurrengo egunerako hazienda eta pertsonaleko deialdia ere. Deialdiarekin batera, aurrekontuen zirriborro berria

jaso genuen: hirugarrena, hain zuzen.

—2012/01/26, Hazienda batzordean EAJk dokumentuak aztertzeke denbora falta salatu zuen. 24 ordu ez dira nahikoa hain garrantzitsua den gaia sakonki aztertzeke. Baina EAJ bost axola, gaia bozkatu egin zen. Aurrekontuen 3. zirriborroak aldeko diktamena jaso zuen Orainen eta Bilduko bozekin. Gaia urtarrilaren 30ean izango zen udalbatzararako atzeratu zen, han behin betiko onspena jasotzeko zain.

—2012/01/27-30ean izango zen udalbatzarrerako deialdia eta dokumentazioa jaso genuen. Dokumentu horietako bat aurrekontuen proposamena zen eta, sinesgaitza den arren, batzordean onartutako aurrekontua berriz ere aldatuta zegoen! Plenorako beste proposamen bat zuten: laugarrena, hain zuzen ere –9.100.000€koa–.

Zein zen beste proposamenekin zuen aldea? Zergatik egin ziren aldaketak?... Ez dakigu ezer. Ez al dugu azalpenik me-

rezi? Bote prontoan, izugarri kezkatzen gaituzten datuak ikusi genituen; besteak beste, gazteriako partidari, aurreko urte-tik hona 20.000€tik 8.000€ra gutxitu zen. Oriotarrek egindako eskaera al da gazteriari ematen zaizkion laguntzak %70 gutxitzea?

—2012/01/30, plenoan, Orainek horrela eskatuta, aurrekontuaren eztabaida eta onarpena mahai ganean gelditu zen. Eskerrak! Izan ere, zalantza asko sortzen dituzten aurrekontuak aurkeztu zizkiguten, eta prozedurak zalantza gehiago sorrarazten zituen. EAJk ere eskatu zuen denbora, baina...

Kudeaketa zuzena izango bada, ezin dira txosten juridiko eta teknikorik gabe erabakiak hartu. Diru publikoaz ari garenean, ezin da bat-batekoan aritu, inprobisatzen. Denok dakigu aurrekontuetan, urtea aurrera doan heinean, aldaketak egiten direla, baina egiten den aurreikuspena errealitateara egokitutakoa izan behar du.

Oriotarrei aurkeztu zitzaizen lehen zirriborrotik azkenera, momentuz laugarrena, milioi bat euroko aldea dago. Zer partaidetza mota da hori? Gu iritzia eman aurretik, datu guztien berri izaten saiatzen gara, eta ez nola halako usteak bota. Ez badugu argi zenbat diru sartuko den Udalean, nola erabakiko dugu zenbat eta zertan gastatu?

Makina bat aldiz entzun dugu ez dituzue formak zaintzen edo ados egon gaitzke fondoarekin, baina formarekin ez ala prepotente bat zara... eta orain bere forma eleganteen aurrean gaudenez... Bukatzeko beste adibide bat azalduko dugu. Aurreko legealdietan bozeramaile bileretan alkate-dekretu eta ordainketen berri ematen zen; haietan, talde politikoek zalantzak argitzeko aukera zuten. Gaur egun, berriz, bozkatuen izan den alderdiak, EAJk, informazio hori ez duela eskuratzen eta alkateari ohartarazi zaionean azkenekoa 2011ko irailean banatu zela, bere ardura ez dela esan digu, eta kito. Norena da, bada?

Iritzia eman aurretik, datu guztien berri izaten saiatzen gara gu, eta ez nola halako usteak bota. Ez badugu argi zenbat diru sartuko den Udalean, nola erabakiko dugu zenbat eta zertan gastatu?

Orioko EAJ



Sanpedroetan plazan egin zuten emanaldia Trikuharri taldekoek. KARKARA

Ikasleak idazle
Laura Arruti

Gabonetako argiak

Aurtengo Gabonetan Udalak hainbat apaingarri jarri dituela ikusi dugu. Beste urteetan, zintzilik zeuden argi horiek eta, aurten, botila eta disqueteak izan dira protagonista. Apaingarri horiek ikasleek egin dituzte, botila berrerabiliak eta disquete zaharrak erabiliz.

Iniziatiba ona iruditu zait aurten egindakoa.



Beti eskatzen zaigu herritarroi energia kontsumoa gutxitzeko, baina

festa horietan badirudi hori ahaztu egiten dela. Aurten, ordea, ideia horri esker kontsumoa gutxitu egin da eta, horrez gain, herriak ere apainketan parte hartzea lortu da. Jende askori entzun diot ez zaiola gustatu, baina nire iritzia bestelakoa da. Egia da ez dela izan besteetan bezain ikusgarria, baina gaur egungo krisi garaiarekin bat datorren erabakia iruditzen zait.

Beti eskatzen zaigu herritarroi energia kontsumoa gutxitzea, baina, Gabonetan badirudi hori ahaztu egiten dela

Globalizazioari to, Inaxito!

Kritika Galtzagorriei to, Inaxito!

DVDa, Izen bera duen antzezlanaren ikus-entzunezkoa.

Bertsoen arlotik abiatuta, badira urte batzuk Ibai Esoain, Xabier Sukia eta Gorka Tolosak Trikuharri taldea sortu zutela.

Haien kezka bertsoaritzaren haurrengan aurkezteko formula egokia aurkitzea zen. *A priori* lana ez dabatere erraza, batez ere bertsoaritzaren helduei zuzendutako jardueraren izanik.

Bertsoaritzak ematen digun baliabide linguistikoei antzerkia eta musikaren magia gehitzea izan da Trikuha-

rri taldearen apustua. Haurra antzerki-lan baten aurrean dago, baina ez ohiko antzerki-lan bat.

Obra guztia bertsoaritzaren sustraitik datozen errima eta hitz-jokoz josita dago eta zenbait pertsonaiaren ahotan jolas bihurtzen da hizkuntza. Horrela sortu zen Inaxito pertsonaia, jakin-minenez betea eta haurrek bezain bihurria.

Bertso-doinuez eta euskarak bere baitan dauzkan errima eta hitz jokoez baliatuz, ederra da Trikuharrikoen azken lana, *Galtzagorriei to, Inaxito*. Lan horretan, esandakoz gain, aipagarria da euskal mitologiaren zabalkundeari egiten dioten ekarpena. Basajaun, lamiak, galtzagorriak eta Anbotoko Andrea

haurren begien aurretik igaroko dira, eta Inaxitoren laguntzaz haien ezaugarri eta nondik norakoak ikasiko dituzte.

Mundu globalizatu honetan, kultura gero eta berdina den une honetan, Trikuharri taldeak gogo asko, ilusio handia eta diru gutxirekin, antzezlan onak egitea posible dela erakutsi digu.

Eskerrak ematea besterik ez dugu, gure haurrei hainbeste disfrutatzeko aukera emateagatik. Globalizazioari to, Inaxito!

[AMAIA IRIBAR]

Sukalde eta bainuen erreformak

XANTI MUJIKA

Igeltseritza

699 46 76 21
943 13 10 37

taller mekanikos

AUTO-LAN

C. B.

urrutira joan gabe talde berria zure zerbitzari

Pelotari kalea, 5 ORIO

943 83 00 34

» INKESTA

Gustura al zaude hamar urte hauetan kirolegiak emandako zerbitzuarekin?

97 erantzun jaso ditu galderak. %26 gustura dago, %65 kexa da, %2ri bost axola zaio kontua eta %5ek ez daki zer esan gai honen inguruan.

**HURRENGO GALDERA****Zer iruditzen zaizu PPK hezkuntza sisteman egin duen aldaketa?**

Erantzun ezazu www.karkara.com webgunean eta emailtza 313. Karkaran argataratuko dugu.

» OSPAKIZUNA

**Ongi etorri, Garbiñe!**

Urtarrilean, urteko aurrenak izateko presaz-edo ume dezente jaio da Orion eta Aian. Horietako bat da Garbiñe Aramendi Fernandez, Maria Rosa eta Xabiren alaba. Urtarrilaren 15ean, arratsaldean etorri zen gure artera Aiako neskatila txikia. Ahizpa Garazik, etxeko gainontzeko guztiek bezala, mimoz zainduko duen itxura guztia du, argazkian behintzat altzoan hartuta gustura dauka-eta.

» ZORIONAK!

Parte-hartzaileei

Aholku batzordeak martxan jari zirela badira hilabete batzuk eta bizi-bizi dabiltzala nabaria da Orion.

Topagune berdea, kultura mahaia eta kiroletako mahaiaz ari gara. Udal berriak martxan jarri zituen eta aurrepegi desberdin asko eta beste hainbat iritzi elkarrekin nahasten dira mahai hauetan.

Aurrerapauso handiak eman dira alde horretatik jendearen parte-hartzean eta herritarrak aktibatu egin dira zenbait esparrutan, ekintza parte-hartzealegoak bultzatuz beren artean. Pozgarria da herritarrak bat eginda ikustea herriarentzako lanean eta, horregatik, gure zorionak bidaltzen dizkiegu txoko honetatik.

uranga
autozerbitzuak



Aliprox

Enlín-Gordai (alra) 13-15
OFICIO
943 83 38 75

LUXARBE
Igeltzeritza

Igeltzeritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfno: 943 83 59 00



ASADOR
XIXARIO

Zaragueta Eskola Orrio
Tel: 943 83 40 52



Zaragueta Eskola Orrio

telefonoa: 943 83 40 52
e-mail: C12137aa@hezkuntza.net



Ramiro argazkiak

610 697 668
943 831 048

www.fotografar.com



Jendeak gogoan duen zorigaiztoko azken hondoratzea Virgen Carmelirena izan zen, 1952an. KUTXAREN FOTOTEKA

Lau gizon itota eta bi bizirik I

Oroimenaren kutxa

I 922ko otsailaren 13an Mariposa ontzia hondoratu eta bi gizon ito ziren Orioko barran: Jose Bixente Loidi eta Jose Manuel Mitxelena, 23 urteko bi arrantzale. Handik hiru urtera, 1925eko maiatzaren 8an, beste naufragio bat izan zen barra arriskutsuan. Goizean lau arrantzalerekin itsasoratu zen baporeak, Goizeko Izarrak, izarrak ez zituen alde izan. Itsasoak, beste askotan bezala, tributu latza ordainarazi zien arrantzaleei, beste bi gizon ito ziren: 35 urteko Laureano Oliden eta 30eko Inazio Manzisidor.

Barra muturrean dago bertan itotakoen zerrenda. Han agertzen dira lau itotako horien izenak. Garai hartako *La Voz de Guipuzcoa*-ra jota, jakin dugu ondoko hau:

1925eko maiatzaren 8 hartan, goizean itsasoratu zen Goizeko Izarra eta arratsean, 21:30ak aldera, etxera zetozen, ontzia arrainaz gainezka. Itsaso handia zen egun hartan, zakarra, Orioko barra itsusi zegoen sartzeko. Zalantza izan zuten, baina patroiak, Laureano Olidene, aurrera egitea erabaki zuen. Itsasoa handiegia edo ontzia txiki-egia, olatu izugarri batek arrantzontzia trapeska harrrapatu eta irauli egin zuen. Arrantzaleak itsasoaren mende geratu ziren. Handik gutxi-

ra, herriko baporeak bertaratu ziren, galdutako bi gizonen bila. Dena alferrik izan zen, itsasoak eraman zituen betiko. Gobernadoreak diru bilketa bat zabaldu zuen, galdutako gizonen familiei laguntzeko, berak diru pixka bat jarrita.

1925eko istripu haren kronika hartan datu bat egiten da deigarria, izugarria: bi gizon atera ziren bizirik, bi anaia: Anjel eta Tiburtzio Etxeberria, biak ezkongabeak. Ba, hiru urte lehenagoko istripuan ere bi gizon haiek atera ziren bizirik: Etxeberria anaia. Txanponaren bi aldeak: leon/kastillo. Bizitza eta heriotza!

[IÑAKI I TURAIN]

» JAIOTAKOAK

- Anje Larrañaga Arrospide, Orion, otsailaren 6an.
- Eñaut eta Oihan Lertxundi Okariz, Orion, urtarrilaren 27an.


» EZKONDUTAKOAK

- Idoia Ugarte Lizargarate eta Xabier Egibar Luloaga, Orion, otsailaren 4an.
- Ibon Idigoras Mendoza eta Eva Maria Gil Sainz, Orion, otsailaren 4an.

» HILDAKOAK

- Joxe Larreta Altuna, Orion, otsailaren 1ean. 76 urte.
- Amancio Villar Nuñez, Orion, otsailaren 1ean. 73 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora: **943 83 15 27**



MIRANDA
Lantza, urte, teilu... eskailera...
behar duen araz lanak
egino ditzazugu
Euzkara Bidea, t. 0109 42 37 76. ZARAITZ

ODITZ
Oinorabateko oinorabateak
Oinorabateko oinorabateak
Tel. 943 83 00 39

PERTS ANAK
A
K
O
M
A
Z
Aluminio, PVC
Venezianak
Motarrak...
Tel. 943 379 21 Murgikorta 400 70 52 27

SOLOZABAL
autoeskola
Eusko Gudari, 30-1. ezk.
telefon: 943 83 68 32

“Gazteei lizentziarik eman ezean, angularen arrantza galtzen joango da”

Juan Anjel Uranga ‘Xixario’ eta Unai Izagirre ‘Olatxo’

Anguleroak

Urtarrilaren amaierarekin bukatu da aurtengo angula denboraldia. Gau askotan motorra hartu eta arrantzara joan direnentzat oso ona izan da aurtengoa, eta aurrerantzean ere hala izatea nahi lukete, araei buruzko kexak badituzten arren.

IRATIAGIRREAZALDEGI

Juan Anjel Uranga 14 urterekin hasi zen angula arrantzan aitarekin eta orain dela 15 urte ontzia erosi zuen. Unai Izagirre, berriz, anaiarekin batera joaten da anguletara eta Orion haiek dira horretarako lizentzia duten gazteenak.

Zer moduzko denboraldia izan da amaitu berri dena?

Unai: Ona, ezin gara kexatu. Angula gutxiago dagoela esaten den arren, gero eta okerrago daudenak baldintzak dira.

Juan Anjel: Eguraldiak ere lagundu digu: euria egin arren, hotzik ez da izan. Denboraldi aurreko uholdeak ere gure onerako izan dira.

Hortaz, angulak badaude.

U.: Egon badaude, Jaurlearitzak azaroaren 15etik urtarrilaren 31ra bitarteko

muga du jarrita, eta hori motza da. Bestalde, gaueko ezin dugu bi kilo baino gehiago harrapatu.

J.A.: Araudia zorrotz bete behar dugu, goardak zain egoten baitira eta ontzietan gabiltzanoi urtero eskatzen dizkigute paperak. Lehorretik ere ibiltzen da jendea eta 100etik gora lizentzia egon arren, lizentziarik gabe ere ibiltzen dira batzuk. Iaz, esaterako, denboraldia bukatu eta Aginaga aldean, lehorretik, angula asko harrapatu zen, eta kexu gara.

Angula asko saltzen dira?

U.: Jendeak erosiko ditu, izan ere, anguleroak hortik bizi dira. Lehen, merkeago zeudenean, gehiago saltzen ziren, orain prezioa ez da edozeinek ordaintzeko modukoa. Orain, anguleroek txinatarrei saltzen dizkiete angula asko, eta horregatik garestitu dira hainbeste.

J.A.: Nik Indonean urtetan egin dut lan, eta Madrilera asko saltzen zen.

Gauero joaten al zarete anguletara?

U.: Gauero ez, baina ahal den guztietan, ilargiaren arabera. Gurea zaletasuna da, ehizara edo korrika egitera goizeko bostetan jaikitzen direnak bezala, gu anguletara joaten gara. Marea beheran hasi eta barra muturretik Aginagara mareak gora egin arte, 5-6 ordu.

J.A.: Nik urte guztiko oporrak anguletan ibiltzeko gordetzen ditut. Gauetan ateratzeko, ordea, eguraldi-baldintzek ere badute eragina. Euria ari den gaua da arrantzarako egokia. Tokiak, berriz, badira sonatuagoak direnak: Botaleku, Intxaurreta eta Saria, besteak beste.

“Araudia zorrotza da, baina iaz denboraldia bukatu eta Agina aldean, lehorretik, angula asko harrapatu zen, eta ontzietakook kexu gara”

“Prezioa ez da edozeinek ordaintzeko modukoa.

Anguleroek txinatarrei saltzen dizkiete eta horregatik garestitu dira hainbeste”

Orain dela gutxi AZTIko biologoei emateko harrapatu zenituzten angulak.

U.: Haiek eskatu, eta angulero guztion erabakia izan zen ematea. Ontzi bakoitza 300 gramo ematekotan gelditu ginen eta, azkenean, 7 kilo eramane zituzten. Asmoa zen 3 kilo eramatea, erdia Zegaman botatzeko eta beste erdia, Mutriuko haztegian gizendu eta, gero, Ataunen botatzeko. Asmoa ibaia angulaz birpopulatzea eta gero proba batzuk egitea da.

Hori zuen onerako izango da?

J.A.: Hala espero dugu. Gutxienez, hemen harrapatutako angulak hemen aske utziko dituzte-eta. Biologoei esan digute, iaz angulak askatu zituzten tokian probak egin dituztela, eta hazten ari direla; beraz, ea ongi ateratzen den.

Anguletan jarraitzeko asmorik?

U.: Esperantza badaukagu, baina jende gutxi gaude eta asko zahartzen hasiak.

J.A.: Okerrena da orain gazteek ezin dutela arrantzarako lizentziarik atera.

Eusko Jaurlearitzak ez du lizentzia berririk ematen. Pixkanaka galtzen joango den gauza da, ez angularik ez dagoelako, baizik eta gazteei utziko ez dietelako. Legea aldatu ezean, ez da segidarik egongo.



KARKARA

» AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Lan eskaintza

■ 18 urteko mutil kolonbiar etorriberriak euskarazko klase partikularrak hartuko lituzke, orain hasi eta uda bitartean. Ahal bada, Orion bertan. Tf.:666 116 641 (Damian). Prezioak-eta adosteko.

■ Emakume euskalduna behar dugu Aian urtebete-ko haurra orduka zaintzeko. Esperientziaduna hobe. Tf.: 615 730 167

Saltzeko

■ Mutilarentzat jaunartze-ko jantzia salgai. Marinela arropa zuria. Neurria: 11. Tf.: 620 539 945.
 ■ Michelin energy 175/70 R13bi gurpil-azal salgai. Parea 95 eurotan. Merkatuan 63 euro bakoi-

tza. Oso egoera onean, frogatu beharrik gabe, ia berri-berriak. Tf.: 696273435.

Alokatzeko

■ Eusko Gudarain, Kultur Etxe parean, etxea alokatzeko. Tf.: 647 642 121.

Lan eskaera

■ Goi mailako ingeniariak LH, DBH eta Batxilergoko eskola partikularrak emango lituzke. klase partikularrak.orio@gmail.com edo Tf: 662 487 964.

■ Emakumea garbiketa eta ume edo adinekoen zaintzarako prest. Kanpoan zein etxean biziko litzateke. Tf: 680 825 073.

■ Errefortzu eskolak ematen ditut, DBH eta batxilergo mailako ikasleentzat.

Tf.: 635 204 447.

■ Neska oriotarra etxeak edo atariak garbitzeko prest. Tf.: 676441327.

■ Gizonezko etorkina adinekoak zaintzeko eta bes-telako lanetarako prest. Tf.: 680 234 095.

Galdutakoak

■ Urtarrilaren 21ean patinetea galdu genuen karo-okean. Gurpil gorriak eta karta batzuen marrazkiak ditu. Aurkitu duenak, deitu 689 341 101 telefono zenbakira edo udaltzain-gora eraman.

Erosteke

■ Orio erdialdean lokala erosiko nuke. Gehienez 30 metro koadrokoa. Lur azpikorik ez. Tf.: 657 797 355.

» ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
10	05:51 eta 18:12	12:01 eta ____	☾
11	06:31 eta 18:53	00:15 eta 12:42	☾
12	07:14 eta 19:37	00:58 eta 13:26	☾
13	08:01 eta 20:27	01:44 eta 14:14	☾
14	08:57 eta 21:28	02:38 eta 15:10	☾
15	10:07 eta 22:46	03:42 eta 16:18	☾
16	11:35 eta ____	05:02 eta 17:40	☾
17	00:16 eta 13:04	06:30 eta 19:01	☾
18	01:35 eta 14:13	07:46 eta 20:07	☾
19	02:35 eta 15:07	08:45 eta 21:00	☾
20	03:24 eta 15:50	09:31 eta 21:43	☾
21	04:05 eta 16:28	10:11 eta 22:22	☾
22	04:42 eta 17:02	10:47 eta 22:57	☾
23	05:16 eta 17:34	11:21 eta 23:32	☾
24	05:49 eta 18:05	11:53 eta ____	☾

» ZAINTZAKO BOTIKAK

OTSAILA

- 10ean, Lasa.
 - 11n eta 12an, Azaldegia.
 - 13an, Larrañaga.
 - 14an, Zulaika.
 - 15ean, Etxeberria.
 - 16an, Gallo.
 - 17an, Azaldegia.
 - 18, 19 eta 20an, Mutiozabal.
 - 21ean, Etxeberria.
 - 22an, Gallo.
 - 23an, Azaldegia.
 - 24an, Zulaika.
- Gauetako zaintzako botika: Zulaika

- Azaldegia:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orrio
- G. Artiano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz

» TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	5:47	6:17	6:47	7:17	7:47	8:17	8:47	9:17	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
Aia-Orio	6:11	6:41	7:11	7:41	8:11	8:41	9:11	10:11	11:11	12:11	12:41	13:11	13:41	14:11	14:41	15:11	15:41	16:11	16:41	17:11	17:41	18:11	18:41	19:11	19:41	20:11	21:11	22:11
Zarautz	6:19	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:08	6:38	7:08	7:38	8:08	8:38	9:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:08	19:38	20:08	21:08	22:08
Aia-Orio	6:15	6:45	7:15	7:45	8:15	8:45	9:15	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15	14:45	15:15	15:45	16:15	16:45	17:15	17:45	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	21:15	22:15
Donostia	6:39	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com. Grisez dauden orduetan trenak daude asteburuetan.

» AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	6:55	7:40	8:10	8:40	9:10	9:40	10:40	11:40	12:10	12:40	13:10	13:40	14:10	14:40	15:10	15:40	16:40	17:40	18:10	18:40	19:10	19:40	20:15	21:00	22:15
Orio	7:25	8:15	8:45	9:15	9:45	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15	14:45	15:15	15:45	16:15	17:15	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	20:50	21:35	22:50
Zarautz	7:35	8:25	8:55	9:25	10:25	11:25	12:25	12:55	13:25	13:55	14:25	14:55	15:25	16:25	17:25	18:25	19:25	19:55	20:25	21:00	21:45	23:05			

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:15	7:45	8:15	8:45	9:20	9:45	10:45	11:45	12:45	13:20	13:45	14:20	14:45	15:20	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:15			
Orio	6:55	7:25	7:55	8:25	8:55	9:30	9:55	10:30	10:55	11:55	12:55	13:30	13:55	14:30	14:55	15:30	15:55	16:30	16:55	17:55	18:55	19:30	19:55	20:55	21:25
Donostia	7:30	8:00	8:30	9:00	9:30	10:10	10:30	11:10	11:30	12:30	13:30	14:10	14:30	15:10	15:30	16:10	16:30	17:10	17:30	18:30	19:30	20:15	20:30	21:30	22:00

Lanegunetan, grisez dauden orduetako autobusak pasatzen dira Urbiletik.

ASTEBURUETAN

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	8:00	9:00	10:00	11:00	12:00	13:00	14:00	15:00	16:00	17:00	18:00	19:00	20:00	21:00	22:00	23:00
Orio	8:35	9:35	10:35	11:35	12:35	13:35	14:35	15:35	16:35	17:35	18:35	19:35	20:35	21:35	22:35	23:05
Zarautz	8:45	8:45	9:45	10:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45	23:15	

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:45	8:45	9:45	10:45	11:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45
Orio	6:55	7:55	8:55	9:55	10:55	11:55	12:55	13:55	14:55	15:55	16:55	17:55	18:55	19:55	20:55	21:55
Donostia	7:30	8:40	9:40	10:40	11:40	12:40	13:40	14:40	15:40	16:40	17:40	18:40	19:40	20:40	21:40	22:40

Asteburuetan, autobus guztiak pasatzen dira Urbiletik. Grisez dauden orduak larunbatetako (lanegunak) zerbitzuei bakarrik dagozkie.

Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek darama. Zerbitzuei buruzko informazioa lortzeko zenbait bide daude: www.landabus.com, Tf. 943 240114 sms-a 5280 zenbakira

Orio

Hitzaldia

■ Otsailaren 10ean, *Ser tu, aqui y ahora* hitzaldia. Hizlaria: Marta Gastaka. Mandalara taldeak antolatuta. Sarrera doan. 19:00etan, Kultur Etxean.

■ Otsailaren 21ean, *Nola la-gundu haurraren adimen emozionalen* hitzaldia. Hizlaria: Nerea Mendizabal. Maria Maestra haurreskolak antolatuta. 17:30ean, Kultur Etxean.

Musika

■ Otsailaren 10ean, Kalakari-tabernako agur kontzertua. Iban Nikolai digjeridu jolea, Azkaiter Pelox eta artista gonbidatuak. 22:30ean, Kalakarin.

Lasterketa

■ Otsailaren 12an. Orioko III. Kros txikia, Zaragueta Herri Eskolak antolatuta. Izena ematea, egunean bertan 11:30ak arte. Irteera: 11:45ean, eskolako sarreran.

Futbola

■ Otsailaren 11n infantilen futbol 8 txapelketan, Orio-Zestoia, 10:30ean, Mendibeltz zelaietan.
■ Otsailaren 11n, jubenilen 1.

mailako igoera fasean, Orio-Pasaia, 16:30ean, Mendibeltz zelaietan.

■ Otsailaren 12an, Kadeteen ohorezko mailan, Orio-Beasain, 12:00etan, Mendibeltz zelaietan.

■ Otsailaren 12an, afizional-tuen gorengo mailan, Getariako Keta-Anaitasuna, 16:30ean, Mendibeltz zelaietan.

Saskibaloia

■ Otsailaren 10ean, kadetesken Gipuzkoako parte-hartze mailan, Orioko Ikastola-Landaberri, 20:00etan, Karella kiroldegian.

■ Otsailaren 12an, Gipuzkoako senior mutilen 2. mailan, Oiarso-Alustiza Autobusak Orio, 11:45ean, Errenteriako Galtzaraborda kiroldegian.

Bingo

■ Otsailaren 15ean eta 22an, bingo saioa, Zaharren babeslekuak antolatuta. 16:30etik 18:30era, Kultur Etxea

Informatika

■ Otsailaren 21ean, Openoffice oinarrizko ikastaroa. 16:00etatik 18:00etara, KZgunean.

■ Otsailaren 22an, Openoffice ikastaro aurreratua. 16:00etatik 18:00etara, KZgunean.

■ Otsailaren 14an, 18:00etan eta 24an, 16:00etan, IT txartela ateratzeko azterketa, KZgunean.

Irteerak

■ Otsailaren 23an, sagardotegira irteera Zaharren Babeslekuak antolatuta. Goizean San Telmo museora bisita eta bazkaria Adunako Aburuza sagardotegian. 35 euro. Izen ematea, otsailaren 14an, 16:00etatik 18:00etara Zaharren Babeslekuan.

Bilerak

■ Otsailaren 13an, Inauteriak antolatzeko bilera. 19:00etan, Kultur Etxean.

■ Otsailaren 16an, irakurzale taldearen bilera. 19:00etan, Kultur Etxean.

Inauteriak

■ Otsailaren 15ean, Kosta Tailerrean; eta otsailaren 17an, Ametsa Gaztelekuan, inauterietarako Txurumuskik egin duen koreografia ikasteko entseguak, 19:00etan.

Etxebizitza babestuak

■ Etxebizitza babestuen zozketarako izen ematea. Azken eguna otsailaren 13a, 14:30ak aurretik, Udaletxean.

Aia

Silo-bolak

■ Otsailaren 14an, silo-bolen bilketa. Zerbitzuari buruzko informazioa jasotzeko deitu: 943 81 65 00 (Urkome) edo 660 04 97 51 (Igor).

Erromeria

■ Otsailaren 12an, Agurtzane eta Jon Elustondo trikitilariekin erromeria. 18:30etik 21:30era, Andatza auzoko Aristerrazuko plazan.

Kontraportadako argazkia

Inauteriak direla eta, kontraportadako argazkia horren harira aukeratu dugu. Argazkikoak, 1981eko belaunaldiko Orioko Herri Ikastolako ikasleak dira. Guztien izenak kabitzen ez diren arren, irakaslearena aipatu dezakegu: Mari Carmen Arrillaga. Fotoa, 1986 aurretik egin da, data zehatzik ez daukagun arren.



HERME Aholkularitza S.L.
Zerga eta lege aholkularitza

Herriko Kalea 10
48863 69 23

2012/01/01 (Guzkotik)
10:00etan

www.berriak.aia.com

AHOALKULARI FISKAL ETA JURIDIKOA

- KONTABILITATEKO AHOALKULARITZA
- AHOALKULARITZA FISKALA
- AHOALKULARITZA JURIDIKOA
- LAN-MUNDUKO AHOALKULARITZA
- FINKEN ADMINISTRAZIOA
- ALLIANZ ETXEROKO ASEGURUEN SALMENTA



Ireki
berria
Orion



LAGUNTZAILE

Gabinete Laguntza S.L.
Herriko Kalea 10, 48863 69 23

